



[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

538. zkia.

XIII. urtea

2005eko uztailaren 15a

Uztailak 22

Tuva eta Kolonbiako dantzak Nazioarteko folklore jaialdian



ASKETA ERREFORMAK, S.L.

Maxpe, 3 behea - 20820 DEBA
Tel.: 943 19 19 52 - Faxa: 943 19 24 60
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com



Santa Klara, 26 • ELGOIBAR
Tel.: 943 74 15 52
606 43 11 19 - 606 43 11 20

**Espezialistak gara fatxada
eta teilatuak errehabilitatzen**

Gehienezko kalitatea prezio onenean



Alzolako bainuetxea
Valentine-n Valastic erabiliz margotua

**Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!**

 **Valentine**
Fatxaden linean liderrak

10 urteko
bermea
gure lan
guztietan!



Arakistain, 2 (DEBA)
Valentine-n Valastic erabiliz margotua



IMANOL LARRAÑAGA

Balorerik sakratuena omen den bizitza zein merke dagoen aitatu nahi nizun gaurkoan; batzuetan, poza eta negarra bereizten dituen marra zein mehea den komentatu nahi nizun, Uxue. Baina, opor aurreko azken txori-kantua, arropak kendu eta hegan egiteko aprobetxatu dut. Pasa den domekan Bizkaiko Laida hondartzan egon nintzen. Hegoak zabal-zabalik nituela arrimatu nintzen Urdaibaiko itsasadarrera. Ikusmira ederra, benetan. Tartean, zure adin bueltako neska-mutilak zeuden; kolorea eta freskura ematen zioten hondartzari. Arropa gutxi eta txikia zeramaten soinean gehienek; koloredun arropak, eguzki gosez zeuden gorputz zuriak babesteko.

Baina, hondartza gainetik pare bat joan-etorri egin nituenerako, zera begitandu zitzaidan: janterakoan gazteok erakusten duzuen ausardia hori, galdu egiten duzuela arropak eransterako orduan. Toaila bat gerriaren bueltan zuela, mutil gazte bat galtzontziloak kendu eta bainujantzia jantzi ezinik ikusi nuen; neska bat, berriz, tirantedun kamisetaren azpitik bularretakoak aldatzeko komeriatan harrapatu nuen. Sasoi batean modan egon ziren beste zaku haietako bat ikusiko nuen beldurrez, hegoak astindu eta etxerako bidea hartu nuen. Hegan, biluzik.

ZOZOAK BELEARI...



UXUE ALBERDI

Dugun zerik sakonena da azala, idatzi zuen behin lagun batek, eta mami interesgarririk ez duenak azal interesgarria eraiki behar. Eta gure azalik bistakoena janzen dugun hori izan ohi da, Imanol. Azala estaltzen duena bihurtu dugu azal. Eta azalak deitu egin behar du, erakarri, barrukoa jateko desira sortu; sagarrekin bezala. Biluztasuna, ordea, mamia eta azaletik aurrera doa. Biluztasuna mitifikatu egin da, eta zikindu. Bost urteko neska txikiei bikiniak janzen dizkiete orain gurasoek, eta komunetik toailarekin ondo bilduta iriteten dira. Haurrek telebistan deskubritu ohi dute biluztasuna, telebistak erakusten die biluztasuna ze inportantea den. Elementala. Ziur asko mamitik gero eta gutxiago dugulako. Eta asko arroparik gabe biluzik sentitzen da, ez nire adineko gazteak bakarrik. Egunen batean konturatuko gara ez garela horren garrantzitsuak, eta Laidara joaten denak nahiago duela itsasoari begiratu gure bularrei baino. Garrantzitsuagoa dela eta, batez ere, bereziagoa. Kasualitatea izango da baina, Imanol: Pirineoetako laku batetik iritsi berria naiz ordenagailu aurrera. Biluzik bainatu naiz, baina ze axola dio. Garrantzitsua aurrean Midi nuela zen, eta atzean Infiernos, eta bien artean arrano bat. Hegan.

«Bularretakoak aldatzeko komeriatan ikusi nuen gaztea»

IMANOL

«Biluztasuna mitifikatu egin da, eta zikindu»

UXUE



EZ DA NAHIKOA GAZTEA IZATEA. GAZTAROAREKIN MOZKORTU BEHARRA DAGO. BERE ONDORIO GUZTIEKIN



Alejandro Casona

Eskerrik asko Haur Eskoliari!

Gutun honen bittartez, Haur Eskolako irakasliak eskertu eta zoriondu nahi dittugu, azken bost urte hauetan gure bi umiak han izan deben tratuagaitik.

Urte mordo bat darue umiak zaintzen eta batiz bat hezten, eta benetan igartzen da lan horretan dauken eskamentu haundixa.

Halakotxia da bizitza, eta, pena haundiz bada ere, agur esatia tokatzen jaku aurtengo udan. Segi orain arte bezela, eta zorte onena etorkizunian.

NUÑEZ-MAKAZAGA FAMILIXIA

OPORRAK!!!!!!

Iritsi da eguna. Barreneko lantaldeari ere iritsi zaito garaia atsedena hartzeko. Eskuartean duzuna da opor aurreko azken alea. Datozen egunetan San Bartolome jaietako berezia prestatzen izango gara eta irailean itzuliko gara fin-fin herriko albisteen berri emanaz.

Ondo pasa oporrak!

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasoñe Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unarue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorostategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urzari Kokoe KE, Urruzuno, Unai Villena, Aitz Vives ESAERA ZAHARRA Galzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Geru Koop. E. TRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

ESKERTZA

2005eko uztailaren 12an hil zen

Jose Mari Altuna Zubizarretaren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Bere animaren alde meza izango da, igandean, uztailak 17,
goizeko 10:30ean Sallobenteko elizan.





KEXAK

• Emakume batek esan digunez, **tabernari askok botila hutsak zabor kontenedorera botatzen dituzte**: "Ostiral eta larunbat gauetan taberna batzuetako kamareroek kristalezko botilak zabor kontenedorera botatzen dituzte, kristal kontenedorera bota beharrean. Penagarria iruditzen zait, hainbeste kristal alperrik galtzea eta ez birziklatzea. Nire ustez denok jarri behar dugu naturarekiko borondate apur bat".



TXALOK

- Ikastolako 4. mailako ikasleek **Mari Kruz eta Jone andereñoak** eskertu nahi dituzte, urte osoan zehar oso ondo portatu direlako.
- Sinuose Taldeak **Elgoibarko herritarrek** txalotu nahi ditu, gure herrian beste mota bateko ekitaldiak ere antolatu daitezkeela erakutsi dutelako.
- Herritar batek **Elgoibarko Udala** txalotu nahi du, udaltzainen artean emakumeak sartu dituelako: "Orain arte gizonezkoak bakarrik ikusten genituen udaltzain lanetan, bazen garaia! Emakumeek gizonezkoen lan berdina egin ditzakete".

Aital honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🚗 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🚗 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Batoz informazio eske!



URRUZUNOREN Luma

Muxua

Hitzak haizeak daroaz, ferekak daroazen modura... baina gaur ohartu naiz muxuak ere eraman ditzakeela.

Muxuak sari norbere ezpainenatik hegaka irteten dira, haizearen laztanak sumatuz; uso mezulariak baliran. Muxu batek une latz bat goxatu dezake, agur bat adieraz dezake, ondo lo egin edo bihar arte bat, maite zaitut bat... sentimendu eroen adierazpen goxo zein xume bihurtuz.

Urruti egon arren, sari, begiak ixte hutsak gure mundu idilikora garamatza. Urruti daudenak laztandu ditzakegu, hizketan entzun ditzakegu, ikus ditzakegu... baina inoiz ez dugu jakingo, beraiek, gure ametsen partaide errealista sekula bihurtuko ote diren.

Muxua bidali duenak ez daki iritsi ote den, ez daki bere lana ongi bete ote duen... baina zin dagizut muxuak urruti egon arren bidali daitezkeela; eta agian, zure malkoa sorrarazi duen hori zure muxuaren zain dagoela bere mantapean...

Inoiz pentsatu al duzu haizeak zugaino ere muxuak eraman ditzakeela?

Maialen Olazabal



BAI ESAN?


IDOIA URIBARRI

DEBABARRENA ESPERIENTZIA
ESKOLAKO KOORDINATZAILEA

Duela 6 urte inguru sortu zen Debabarrenako Esperientzia Eskola. Helburua, lanean ez dauden 50 urtetik gorakoei gizartearen modu aktiboan parte hartzeko aukera ematea da. Ikasturte berrirako matrikula zabalik dago eta izena eman nahi duenak 943 820 110 telefonora dei dezake. Ikastaroa egiten dutenek ziurtagiria ere jasotzen dute.

- **Zer da Esperientzia Eskola?** Arlo ezberdinetako moduloak batzen dituen proiektua da. Pertsona bere osotasunean ulertuz, garapen pertsonala, gizarte harremanak eta etengabeko ikaskuntza sustatzea da helburua. Horretarako erabiltzen den metodologiak errealitate soziala aztertzen du errealitate hori ulertzeko.
- **Nori dago eskainia?** 50-100 urte bitarteko pertsonen har dezakete parte, lanean ez daudenen baina gizartearen modu aktiboan parte hartu nahi dutenei. Ez da titulorik behar, soilik esperientziak trukatzeko gogoia.
- **Zer ikasten da?** Denetik: giza harremanak eta komunikazioa, erlaxazioa, literatura, zuzenbidea, ekonomia, psikologia, filosofia, artea... Ekintza osagarriak ere egiten ditugu: mintegiak, bisita kulturalak, beste eskoletako ikasleekin elkartrukeak.

komikia



Kokoe 026

[AKORDATZEN NAIZ]



JAVIER ARRIOLA

1940an jaioa

«Parrandak»

Orduan ere klasiak izango ziran, ezta? Guria hala izaten zan: zapatuan lan egiñ 17:30ak arte. Gero etxian, holako ortu pixkat ere bazaguan eta egurretara aittakin mendira jun, egurra ekarri eta txikitu... Zapatuan, lanian, esan daigun. Domeka goizian, Mendarora zazpiretako mezetara. Hori ez zagan fallatzerikan. Domeka goizian mezetara jun bihar gendun goizeko 7:00etan, eta arratsaldian *Bisperetan*, 15:00etan (jai arratsaldian egitten zan funtzio bat, Errosarixua eta emakumiak kantuan egitten zaben; beste eleiz funtzio bat zan). Eta ojo! Elizan alboko lagunari esan baziñon *gero hara edo hona jun biou*, tak, abadiak ikusi, eta aitta jakiñian bixaramunian: *Atzo zer, elizan zer?*

Izaten zan poz bat mezia amaitzen zanian! Tabernara. Ardo goxua eta galleta Maria. Hori nagusixak, guk ez, ojo! 18-19 bat urte artian ez! Gaztiok

periodikuan zaiñ egoten giñan. Trenian etortzen zan. 8:00-retan etortzen zan trena Donostiatik, eta periodikua asteartian eta domekan hartzen gendun, gurian behintzat. Asteartian etortzen ziran nobedaderik haundixenak. Orduan *Hoja del Lunes* izaten zan, lau orriko periodiko txikixa. Asteartekua konpletuagua izaten zan, jaikuak eta danak ekartzen zittuan, eta sua pizteko ere zela bihar zan *hoja* asko eukitzia...

Meza arteeria oso politta, basarritxarrak alkar ikusi ere orduantxe egitten zeben-eta. Gero tabernara jun, zaharrak, eta karga-karga eginda, gora...



[GURE BERBAK]

Zenbakixak eta zenbatzailliak esapidietan (eta 2)

Gaurkuan amaittuko dogu zenbakixen kontua, zuetako asko ere "zenbakixak egitten" ariko zerate-eta oporretarako zenbat geratzen dan kalkulatzeko. Nik, nere partetik, ez dizuet oraingoz lan gehixago emango. Opor onak pasa eta itzulerara arte.

- *Jenero franko ekarri jok gaur basarritarrak azokara.*

- *Lana galanki egin gendun gaztetan.*

- *Gitxi entzutzen da aspaldixan Aznarren izena. (Gitxi gehiago gutxi baiño)*

- *Jende mordua (mordoxkia) etori zuan San Juan sua ikustera Altzolara.*

- *Apenas entzutzen dan gaur egunian Afganistango berri.*

- *Txikittan ikisi gendun apurra ahiztu jaku.*

- *Bastante egitten dabe guraso horrek hainbeste seme-alabarekin.*

- *Dezente jan jonagu.*

- *Lehen, artua eta hartzen zuan... kantidadia!*

- *Libra erdi exkax intxaur dago hamen.*

Jesus Mari Makazaga

JESUS MARI MAKAZAGAREN OHARRA:

Gustora jasoko nittuzke zuen oharrak, iradokizunak eta kritikak. Halako egittura edo berba bereziren bat ezagutzera eman nahi badidazue, oso pozik jasoko dittut. Bialdu azpiko helbide elektronikora edo Barrenera (nere izena jarritz). Eskerrik asko, alde z aurretik. jesusmari.makazaga@ehu.es



JOSE *pinturak*
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Iriondo

TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

ZIRKUA

MUNDUKO IKUSKIZUN HANDIENA

Horrela ezagutzen edo iragartzen zen zirkua lehen: "munduko ikuskizun handiena". Herrietara iristean, urteko gertakari nagusienetakoa bilakatzen zen. Egun telebista, zinea eta bideo jokuen konpetentziari aurre egin behar dio, besteak beste, baina zirkoaren magiak bere horretan jarraitzen du. "Cirque du Soleil" modukoek ikuskizuna pauso bat haratago eman duten arren, oraindik ere badira herriz-herriz mugitzen diren zirku tradizionalagoak. Hauxe da Bellisario zirkuaren kasua. Joan zen astean herritar askok ikusiko zenuten ikuskizuna iragartzeko gure kaleetan pasiatu zuten tigretsarra. Arduradun eta artistekin egun bat pasa genuen zirkuan.

Famili zirku da Bellisario. Italiar jatorrikoa da, 1800. urtean sortua, baina orain frantziar familia batek darama Bellisarioren izena Europan zehar. Guillaume Dallau eta bere sendia Toulouse-ekoak dira. Familiako zortzi kide dira zirkuo artistak eta harez gain beste 14 langile egiten dute lan beraiekin.

Autokarabana moderno eta handietan topatu ditugu Xixilion plazan. Handiak behar dute izan, beraien etxeak baitira. Ahuntz, zaldi eta astoak zuhaitzei lotuta eta tigreak kaiolan sartuta aurkitu ditugu. Langileak, berriz, karpan lanean, emankizunerako azken ikutuak emanaz.

ARTISTEN ENPLEGU-ANIZTASUNA

Zirkuko artista gehienak moduan, zirkuo da Guillaumek ezagutzen duen bizimodu bakarra. Aitarengandik eta amarengandik ikasi zuen ofizioa haur bat zela. "Cow-boy" ikuskizuna eskaintzen du pistan. Latigo eta lazoarekin da trebea eta emazteak eskuarekin eusten duen zigarroa mozteko gai da bere latigoa erabiliz. Aurkezle eta hizlari lanak ere egiten ditu. Bederatzi urteko semea eta bost urteko alabatxoa ditu eta jadanik zirkuo artista peto-petoak dira. Orekaria eta pailazoa da semea, eta alabatxoa, berriz, hula-hoop-arekin maisu.



Guillaumeren lehengusua eta osaba dira zirkuko animalia-hezitzaileak. Lehengusua, tigreekin eta ahuntzarekin lan egiteaz gain, pailazoa eta malabarista ere bada. Artista denei lan bat baino gehiago egitea dagokio tamaina honetako zirkuan. Guillaumek azaldu digunez, bakoitzak aukeratzen du nondik jo nahi duen, "umetan denetarik probatzen dugu eta koskortutakoan norberak aukeratzen du zer egin nahi duen pistan".

Frantzia eta Alemaniatik ibili ostean bi urte daramatza Bellisario zirkuak Espainian, "Galizia, Madril, Andaluzia... Espainia guztia zeharkatu dugu eta orain Euskal Herria" aipatu digu. Herriaren tamainaren arabera erabakitzen dute toki bakoitzean zenbat denbora eman. "Elgoibar moduko herri batean bi egun eta Eibarren lau egun. Hiriburu handietara ez gara joaten, gurea baino zirkuko handiagoak joaten baitira".

Harrigarria badirudi ere bi ordu besterik ez dituzte behar zirkua muntatzen eta desmuntatzen. "Gizonok

parte hartzen dugu lan horietan eta emakumeek denontzako bazkaria prestatzen dute bien bitartean".

Zirkuko bizimodua gogorra dela baieztatu digu Guillaumek, "baina baita bizimodu berezia

ere, oso berezia. Norberak egin behar du dena zirkuan. Baimenak eskuratu, karpa muntatu, animaliak zaindu eta jaten eman, artista lanak egin, e.a. Denbora eta izerdi asko joaten da lan horietan". Zorionez zirkuaren magiak bizirik jarraitzen duela aitortzen du, "Jendea pozik, irrifar batekin ateratzen da gure ikuskizunetik, eta hori da balio duena. Lehen ikusle gehiago etortzen zen, baina oraindik ere badator jendea. Horrela izaten jarraitzen duen bitartean guk ere herriz herri jarraituko dugu".



[PROTAGONISTA]



Etxe-Tar

Elgoibarko Etxe-Tar enpresak Volkswagen Award 2005 saria jaso berri du "Enpresa bikaintasuna" deitzen den alorrean. Volkswagen Taldeak urtean zehar izan dituen 25 ekoizle onenak txalotu nahi izaten ditu eta egindako lanaren merezimendu gisa banatzen ditu aipaturiko sariak. Etxa Tar duela 40 urte sortu zen eta gaur egun 2 egoitza ditu Elgoibarren eta hirugarren bat Detroiten, EEBBetan. Autoentzat pieza mekanizatuak egiten ditu; Volkswagen, Renault, BMW, eta Audi enpresentzat, besteak beste. Produkzioaren %90 mundu mailan esportatzen dute.

[NOTIZIA]

Saharako bi umek eta Errusiako batek Elgoibarren pasatuko dute uda

Ekainaren bukaeran iritsi ziren Saharako bi mutiko eta Errusiako neskatxa bat Elgoibarrera, eta irailera bitartean egongo dira beren herrialdeetik kanpo.

Mohamed, 11 urtekoa, laugarren aldiz etorri da gure artera, eta aurtengoan ere, familia berak hartuko du etxean. Omarrek 9 urte ditu, eta aurten hirugarren aldiz etorri da Elgoibarrera. Aurreko urteetan bezala, Omarrek laredon pasatuko du uztaila Elgoibarko senideen aiton-amonekin. Saharako umeak hona ekartzeko tramite guztiak Frente Polisarioak Euskal Herrian duen ordezkariaren bidez egiten dituzte. Ardura handia den arren, familiek ilusio handiz hartu dituzte umeak etxean.



Lida, bigarren aldiz

Lidak 7 urte ditu, eta bigarren aldiz etorri da aurten. Iazko familia berak hartu du etxean, eta alaba bat gehiago dirudi. Hasieran oso isilik zegoen arren, hasi da konfiantza hartzen. Are gehiago, euskaraz ere hasi da hitz egiten poliki-poliki.

[ZENBAKIA]

14.500

Elgoibar Gipuzkoako herri aberatsenen artean kokatzen da, urteko 14.500 eurotik gorako errenta per kapitaretin. La Caixak eginiko ikerketa ekonomikoa honen arabera, Gipuzkoako batz besteko errenta 13.500 eurokoa da, eta Espainiakoa 11.300 eurokoa. Beraz, Elgoibar batezbesteko guztien gainetik dago.

asteko [ARGAZKIA]



Eguraldi ona eta opor garaia iritsi zaigu aurten ere. Konturatzerako uztaila erdian gaude, eta jende guztia oporretara joateko planak egiten ari da. Begira nola aurkitu genuen Elgoibarko tren geltokia asteazken eguerdian! Kabitu ote ziren denak hondartzan? Bero latza egin zuen egun honetan, eta jendeak kostaldera alde egin zuen, bainua hartu edota hondartzan pasiaratxo bat ematera. Beste batzuk lanean jarraitzen dute oraindik, baina animo, gutxi falta da eta! Ondo pasa eta gozatu!

78 aparkaleku eta Babes Ofizialeko 16 etxebizitza eraikiko dira Madalan



Ekainaren 29an ospatu zen Udal Plenoan Madala 2, Madala 3 eta Usetxe sektoreei dagozkien Arau Subsidiarioak aldatzea onartu zen, Azkarateko bide zaharra eta Pedro Muguruza Etorbidearen artean Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta aparkalekuak eraiki ahal izateko. Une honetan promozio askeko 145 etxebizitza eta hotel bat eraikitzen ari dira ingurune honetan.

78 aparkaleku, 16 etxebizitza

Babes Ofizialeko 16 Etxebizitzak 594m²ko orubean eraikiko dira. Lehenagoko ordenantzan espazio hau

erabilpen sozial eta publikorako egokituta zegoen, Gaztetxe berria bertan eraikitzeko aukera ere kontuan hartu zen hasiera batean. Azkenean, badirudi Gaztetxea Mupem enpresaren lokalean kokatuko dela, eta Pedro Muguruza Etorbideko lursailetan Babes Ofizialeko Etxebizitzak egingo dira.

Bestalde, Arau Subsidiarioen aldaketa honekin lurrazpiko 78 aparkaleku eraikiko dira. Herriko lehenengo lurrazpiko aparkaleku publikoa izango da hau. Aipatzekoa da, gainera, Pedro Muguruza Etorbidea oinezkoentzako bakarrik izango dela.

[MOTZ-MOTZIAN]

Patronatuko abonatuentzat termak erabiltzeko deskontuak

Gipuzkoako Terma edo bainuetxetara doazenean beherapenetaz gozatzeko aukera izango dute Udal Kirol Patronatuko abonatuak. Euskadiko Udal Kirol Teknikarien Elkartearen gestioari esker lortu dira beherapenok. Zumaiaiko Hotel Zelai, Donostia-ko La Perla eta Zestoako bainuetxeaz gain, aurrerantzean Debako Kresala eta Lekeitioko Aisia Hotelek eskaintzen dituzten zerbitzuetan ere abantailak izango dira: ur zirkuitoetan %20ko beherapena, tratamenduetan %10ekoa, eta abonu eta bazkide txarteletan %5eko beherapena.

Mintxetako igerilekuen uztailako ordutegia

Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, Mintxetako igerilekuen ordutegia luzatu egingo da uztailan; goizeko 11etatik gaueko 9ak arte egongo dira irekita, hain zuzen ere.

Urritasuna duten pertsonak lanean integrazteko hitzarmena

Debegesak eta lan integrazioarako Adecco Fundazioak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Honi esker urritasunen bat duten pertsonak, familia-ko ardurak dituzten emakumeek, 45 urtetik gorako pertsonak eta kirolari ohiek lan munduan eta gizartearen bameratzeko aukera izango dute. Prestakuntza ekintzak, lan programak eta lan ibilbideak antolatuko dira pertsona hauek etorkizunean lanposturen bat izan dezaten.

1955eko kintoentzako oharra

Aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrek kinto bazkaria ospatu zuten ekainaren 25ean. Jatekoarekin zenbait arazo izan zituztenez, antolatzaileek beherapen bat lortu zuten jatekian, eta bakoitzak 6 euro jokatuko ditu datorren uztailaren 16ko Loteria Nazionalan. Zenbakia: 47.674.

Ane Sarasketak Balkoi Apainketa lehiaketa irabazi du



Ekoastea programaren barruan Debegesak, Eskualdeko Udalekin elkarlanean antolatutako IV. Balkoi Apainketa Lehiaketa Ane Sarasketak irabazi du. Epaileek herri guztiak bisitatu dituzte, eta Elgoibarren Trenbide kaleko balkoiari eman diote saria. Mendaroko irabazleak Azpilogetako Jose Maria Riaño eta Matilde Idiakez izan dira. Debarrenako herri bakoitzak bere irabazlea izan du, eta eskualdeko irabazle nagusia Mutrikuko bizilagun bat izan da. Sarituek 100 euroko erosketa txekoa jasoko dute, lorezaintza alorreko dendetan materiala erosteko.

Inkesta

Reala uzteko 36 milioi euroko etete-klausula ordaindu beharko du Zubiaurrek
Zein da zure iritzia Iban Zubiaurrek hartu duen erabakiaren aurrean?

NEREA CUENDE

Ikaslea

13 urte



“Ondo iruditzen zait, gehi-
go ordaintzen badiote nor-
mala da Athletic-era joatea.
Kasu honetan sentimentuak
baino garrantzia gehiago
dauka diruak.”

SANTOS FERNANDEZ

Pasteleroa

47 urte



“Normala, denok gauza
bera egingo genuke! Gainera
bere bizimodua ez da asko
aldatuko, urrutira joan behar
balitz, beharbada ez litzateke
joango.”

MIKEL AROSA

Ikaslea

14 urte



“Ondo, nik gauza bera egin-
go nuke. Futbolariaren karrera
oso motza da eta datorrena
aprobetxatu behar da. Ezin
zaio kritikatu, kasu honetan
diruak agintzen du.”

AGURTZANE BASTIDA

Garbitzailea

42 urte



“Berarentzat onena baldin
bada, aurrera! Nahiago nuke
Realean jarraituko balu,
baina bere etorkizunari begi-
ra diru gehiago ematen dio-
ten taldera joatea hobe da”

“Gomendatzen dizut...” saria

Zure oporrak gomendatu nahi dizkiguzu?
Kontaiguzu zein den zure herri, hondartza, mendi, ostatu
edo dena delako kuttuna eta sari bat irabaziko duzu!

Bidali mezu labur bat edo argazki bat testuarekin

elg.gaztebulegoa@terra.es helbidera edo utzi zure gomendioa Gazte Bulegoan.

Partehartzailerik guztien artean bi sari zozketatuko ditugu!

- 17 urtera artekoentzat: CD portatila MP3 sarrerarekin
- 18 urtetik gorakoentzat: Asteburua 2 pertsonentzat landetxe batean.

GOMENDIOAK AURKEZTEKO EPEA: irailak 30.

ZOZKETA: urriak 7.



Elgoibarko Gazte Bulegoa
Kultur Etxea, Nafarroa plaza
Tel.: 943 74 14 61
elg.gaztebulegoa@terra.es

[GOMENDIOA]

Beroari aurre egin

Udan gaude bete-betean eta bero bolada handiak ere ezagutu ditugu egunotan. Zer egin behar da gehiegizko beroak kalterik ez egiteko? Onena, prebentzioa. Hona hemen hainbat aholku:

Etxean

- Leihoak itxi eta etxea itzalpean mantendu.
- Etxeko txokorik freskoenean egon.
- Ur eta zuku asko edan.

- Ur hotzarekin dutxatu.
- Alkohola eta janari astunak, koipetsuak eta beroak ez hartu.
- Arropa freskoa erabili. Kotoizkoa, arina eta kolore argiduna.
- Ez egin gehiegizko kirolak.

Kalean

- Itzaletik ibili.
- Arropa arina jantzi.
- Likido asko edan.
- Autorik ez hartu bero gehien egiten duen orduan.

- Ez utzi auto barruan haurrak, zaharrak edo ezinduak.
- Atsedena hartu, freskagarriren bat edan eta aire egokitua duten lokaletan sartu.

Mendian edo hondartzan

- 12:00-16:00 bitartean ez jarri eguzkitan.
- Burua estali eta arropa arina eraman.
- Sonbrilla eraman.
- Sarri bainatu.
- Burua, aurpegia eta garondoa busti.

[OSASUN GIDA]

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldia)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

HORTZ KLINIKAK

Nora Bastida

Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75

Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30

Gerardo Natenzon

Santa Ana, 20 behea - Tel: 943 74 36 35

Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra

SARGOATEKO ERROMERIA

uztailak 25, astelehena

EGITASMOA

11:00

Meza

12:00

Salda eta txorizoa

12:30

Bertsolariak

(German Meabebasterretxea
eta Xabier Arrizabalaga Ziarda)

eta Trikitilariak

(Baltzola anaiak)

14:00

Erromeriaren amaiera



idazmakinak

gazteentzako ipuin eta bertso-paper lehiaketa 2005

IDAZMAKINAK 2005 gehigarri berezi honekin bi gauza lortu nahi ditugu: lehen helburua, lehiaketan lehen saria irabazi duten lanak ezagutzera ematea da; eta bigarrena, BARRENEko irakurleoi lan hauek irakurtzeko aukera eskaintzea. Orain arte Laiotz literatur aldizkarian argitaratzen genituen, baina, aurrerantzean, BARRENEkin batera banatuko ditugu idazlehiaketako lan irabazleak. Hartara, jende gehiagok izango duzue gure gaztetxoan lanak irakurtzeko aukera. Ikusiko duzuen moduan, gehigarrian zehar ipuinak eta bertsoak daukazue irakurgai, eta, gainera, ipuinen egileekin ere egon gara elkarizketa txiki bat egiteko. Lerro hauen azpian, beriz, lehiaketako saridunen izen-abizenak ikus ditzakezue. Beraz, tarte bat hartu eta gure herriko idazle-gai hauen lanak irakurtzera gonbidatu nahi zaituztegu. Ipuinen eta bertsoen munduaz goatzera, hain zuzen ere. Gustura egongo zaretelakoan.



IRABAZLEAK

IPUINAK

DBH 1-2 mailak: "Hiru desio" lanarekin:

1. saria: Dorleta Fernandez
2. saria: Gorane Gonzalez eta Mikel Olaizola

DBH 3-4 mailak: "Txateatzen ezagutu dut" lanarekin:

1. saria: Maialen Amedo
2. saria: Amaia De Castro

BATXILERGOA: "Nire fantasiak" lanarekin:

1. saria: Ane Odria
2. saria hutsik geratu da.

Epaimahaia: Jasone Osoro, Iñigo Otaño eta Jon Eugi.

ETXEGIÑA BERTSO-PAPERAK:

DBH 1-2 mailak: "Telebistan irten naiz" lanarekin:

1. saria: Mikel Olaizola
2. saria: Gorane Gonzalez

DBH 3-4 eta Batxilergoa: "Ezin naiz lokartu" lanarekin:

1. saria: Maialen Olazabal
2. saria: Maialen Olazabal

Epaimahaia: German Meabebasterretxea eta Irati Agirrezaldegi.

Elkarrizketak: Jon Eugi • **Maketazio-lanak:** Jaione Unanue

antolatzaileak:



laguntzaileak:





"FANTASIAK FERREKATZEAN"

1988ko irailaren 27an jaioetakoa da.

Batxilergo-ko 1. maila ikasi du.

BESTE SARIAK: 2001 eta 2003ko lehiaketetako irabazlea da. Horrez gain, 2000.ean Mendaroko ipuin lehiaketan bigarren gelditu zen eta baita Elgoibarko prosa lehiaketa honetan ere 2002an.

Fernando Morilloren "Ortzadarra sutan" liburua gustatu zaio.

Hirugarren aldiz irabazi du lehiaketa hau Anek, aurrez 2001ean eta 2003an ere nagusitu zelako. Aurten ez du lehiakiderik izan, berak bakarrik aurkeztu duelako idazlana baina pozik da badakielako ez diotela saria oparitu. "Nik ere pentsatu naban ia sarixa eman ote ziaben parte hartzaile bakarra nintzalako. Baina komentatu zibenez merezi izan nualako eman ziaben, eta hori entzun eta gero gustora geratu nintzan".

"Nire fantasiak" gaiaz idatzi beharra zeukaten maila honetan. Emazte hilari gutunak idazten dizkion agurearen istorioa asmatu zuen berak. "Agure baten ikuspuntua hartzia ez dakitt zelan okurritu jatan. Halako pertsonak ze fantasia eduki ahal diituan pentsatu naban eta emaztia hilda egotia okurritu jatan. Horrekin batera, Oliteko Gazteluak jokua ematen ziala konturatu nintzan, kartak hara bidali ahal zittualako aguriak".

Hausnarketak bere tartea du narrazioan "Egoera planteatuta neukan: agureak kartak idazten dizkiola emakumeari. Idazterakuan asko disfrutau dot deskribapenak-eta egitten, ze Olite herrixa ondo ezagutzen dot. Baina ipuin honek ez dauka amaiera jakin bat, ez dakizu zehatz-mehatz zelan amaitzen dan istorioa. Bakoitzak pentsatu daixela nahi dabana, zer pentsatua ematen dau-eta".

Fantasiak bizitzan daukan lekuaz dira gogoetak. "Estremo batera eramandako gaia da hau, agurearen kartena etab. Ipuin bat da baina gaur egun denori gertatzen jakun zehozer da. Askotan nola errealitatea gogorregixa dan, fantasiara jotzen dogu. Zeinek ez dituu bere ametsak? Nik uste dot danok ditugula".

Maite
Karlos III.aren enparantza
31390 Olite
Nafarroa

Musu itxaropentsu batekin batera, esku dardaratiek lehoiaren ahoan barrena bota dute; Oliten ez dago postontzi hori aruntik, Oliten harrizko lehoi batek jasotzen ditu herritarren eskutitz guztiak. "Hamabiak eta laurden, postaria ordu-batetan pasako da... biharko iritsiko zaio!", pentsatu eta ogia erostera abiatu da, "gatz gabekoa eta barra erdi, ez kruasan ezta opil-txorik ere!", gerrialdea igurtziaz irribarrez sartu da okindegira, baita atera ere.

-Ilgualmente! -erantzun dio egun onak eman dizkion bizilagunari etxera iristeko azken eskailerak falta zaizkionean. Ogia arrebak jositako poltsa gorri koadrodunean sartu eta balkoira atera da.

Udaberriko egun sargoria izateko jende larregi ez ote dabilen galdetu dio bere buruari. Hala ere, zerbaitekin konturatu berri da agurea; denak itzalpean doaz, inor ez eguzkitan. Ez doaz ilaran, ez daukate inongo presarik, laket dute bi erosketa egiteko bada ere, goiz osoa kalean gora eta behera pasatzea.

Ez dago inongo kotxek egin lezakeen zarata jasanezinik, erosketak egiteko karroak eta bizikletak besterik ez dira ikusten. Dendak bereziak dira oso, piper pote bat erostera bazoaz ere, denetik topatuko duzu: ardoa gaztaren ondoan eta zainzuriak ogiaren alboan. Txori eta tximeletek ere euren presentzia nabarmendu nahi izan dute, eskolatik etxerantz txirinduan doazen haurren atzetik hegaka doaz. Badirudi alaitasunak herria erosi, eta askatasunarekin batera kale guztien jaun eta jabe egin dela. Bitartean, herritarren elkarrizketek ere bihotza goxatzen diote Anastasiori, begiak itxi eta amasa sakon hartu du, makina bat gogoeta etorri zaio oroimenera.

-Anastasio! Bizi gara edo! -Patxi izan da, eztarri urratu hori nahastezina da.

-Hombre golfo!!!

Arratsaldeko mus partidara kale ez egiteko eta galtzeko prest joateko esan ez dio ba! Ohi bezala, eskuarekin gora egin ez agurtu dute elkar. Lasaitasuna da nagusi berriro ere kale nagusian, amasa hartu du atzera ere, baina oraingoan sakonago. Olite baketsua da oso, Erdi Aroko etxe eta kaleek ukitu berezia ematen diote herriari, batez ere plaza erdi-erdian dagoen gazteluak; jauregiak.

"Estoy seguro que no hay rey que tenga palacio ni castillo



más hermoso... no se podría decir ni aun se podría siquiera imaginar cuán magnífico y suntuoso es dicho palacio".

Anónimo alemán, siglo XV

"Eguraldiak bere horretan jarraituko du, temperatura igo eta eguzkia izango da nagusi, batez ere Erribera aldean. Haizeak hegoaldeetik joko du, nahiz eta iluntzerako Nafarroa iparraldean lainoak ugarituko diren. Biharkoa ere...", "Ruperren doinu honekin uzten zaituztet, zaindu maite duzun hori...", "burtsaren gorakadarekin batera, dibisaren galerak zeresana eman du Estatu Batuet..."

-Utikan irratia! -abesteari ekin dio Karmelek "si me volviera canario, todo el día cantaría, pa decir que tus amores me están quitando la vida...". Zuzendaritzatik behin baino gehiagotan eman diote jotak horren altu ez kantatzeko abisua, baina ez da ez lan makala turismo bulegoa isiltasunean garbitzea emakume gaztearentzat. Erratza pasatu, hautsa kendu, lurra garbitu eta paper guztiak bere tokian lagatzea da honen betebeharra, zazpietatik zortzietara, astelehenetan eta ostiraletan.

-Gazteluko buzoian??? Zoratuta behar du gizonak eskutitz hau bidaltzeko!

-Auskalo nor izan den, ez du izenik aipatzen.

-Zure begien orlegia islatzen da gazteluko pareten artean

-kar, kar, kar- oraindik ere gogoan dut eskaini zenidan maitasunak zenbaterainoko babesa eman zidan. -bulegariak ezin izan diote barreari eutsi garbitzaileak ate atzetik elkarrizketa entzuten zuen bitartean. Karmelek dena entzun du, baina ez du ezer entzun; ez dago entzun nahi ez duena baino gorragorik.

-Karmele, atea bi bueltarekin itxi, gu bagoaz.

-Nire kontu! -ez du uste ezertaz konturatu direnik, "hobe horrela".

Monasterioen apalean, Tulebraskoa, Fiterokoa, Irantzukoa eta Olibakoa nahastu egin ditu, ez du bakoitza bere multzoan jartzen asmatu. Ez da bere lanean kontzentratzen. Gastronomiari dagokion balda bere horretan utzi eta gazteluena txukuntzeari ekin dio. Hemen bai, Xabierkoari dagozkion panfletoak alde batean eta Olitekoari dagozkionak bestean. Atera begira-begira geratu da, beste mundu batean balego bezala. Bere begien isla kristalean ikusi duenean berriro ere garbitzeari ekin dio. Tentaziotik ateratzeko erarik onena bertan erortzea omen da eta birritan pentsatu gabe, zakarontzira jo

du zakarra ez den zerbaiten bila."Aaaiiii!" ziztada ederra eman dio paper artean zegoen txintxetak. "Hara non dagoen!"

2005eko apirilaren 18a

Maite maitea:

Non ezkutatu zara? Zergatik ihes egin? Diozuna diozula ere, bakean lagako zaitut, askatasunean. Halaxe egiten dut orain ere, lorik ezin hartuta gaztelu dorreen artean bueltaka sumatzen bazaitut, faltan botatzen nauzulako izango delakoan oheratu egiten naiz. Horrela bai, horrela begiak amen batean ixten zaizkit. Atsegin dut begiak itxi eta iragana present izatea, badakit jakin ere zuri berdina gertatzen zaizula, ez al da hala?

Ezin nezake hitzekin adierazi Bardeetan ematen dudana pasiera bakoitzean barrenean sentitzen dudana; haizeak zure usaia barreiatzen duen heinean, inguruko kolorea aldatu egiten da, hodeiak arrosa kolorekoak bihurtu eta bakardadeak agur esaten dit, agur une batez.

Hasieratik bukaerara hirugarren aldiz irakurri du, "agur une batez", listua irentsi eta begiak zabal-zabalik zituela, hasperen egin du, pentsakor gelditu da. Bi orri zituen eskutitzak, hala ere, azkeneko orrialdean, laugarrenean, olerki moduko esaldi batzuk besterik ez zeuden, "maite zaitudalako maite zaitut, ez baitut behar besterik, Maite."

Irribarre egin du Karmelek kartazalak zeraman kiratsaz jabetzean, aspaldi ustelduta behar zuen kolonia bota dio igorleak.

Lau hormen artean zenbat gauza sar daitezkeen ikusteko nahikoa da ganbara honi erreparatzea, hala ere, harrigarria da zein azkar topa daitezkeen bilatzen gabiltzan hori, gauza bakoitzak bere tokia du, ez dago salbuespenik. Kaskoari hautsa kendu dio putz eginez lehenengo eta trapu txuri batekin gero. Ilunduko ote zaion beldurrez, ez du denborarik galdu nahi izan, eta Anastasiok martxan jarri du motorra. "Argedas 27km" zioen kartelari jarraitu eta aise iritsi da horrenbeste miresten dituen Bardeetara.

Badirudi, bertara gerturatu ahala bakardadea duela lagun, gustuko du beste inorekin topo egin gabe, barrenarekin solastea, bere burua ezagutzea. Harritu egiten da arratsaldeko sei

eta erdiak jota daudenean paraje horietan inor ikusteaz, "nire moduko beste bat" pentsatu ohi du halakoetan. Lasaitasun osoz, motorra aparkatu eta artzainen omenez egindako irudiaren parean eseri da gizona; aita eta aitona dakartzio gogora, "labradores" herrian esaten zuten bezala. Begiak artzainaren aurpegira zuzentzen diren arren, zeharka bada ere zerua ikus dezake; lainoek beren kolorea galdu eta arrosa kolorea bereganatu dute zeru urdinari kontraste apur bat egiteko asmoz. Nahiz eta urrutira base militarra izan, bakea besterik ez du sentitzen inguruan, hego haize samurrak azala laztantzen diolarik, naturari eskerrak ematen dizkio oraindik ere horrelako toki zoragarriak geratzen direlako. Begiak itxi ditu emeki-emeki; ez du asko behar izan Maiteren musua masailean sentitzeko, ezta bere ileek aurpegian kili-kili egiten diotela sumatzeko ere. Bai ordea, irekitzean dena fantasia hutsa izan dela konturatzeko. Masaila igurtzi duenean, ezpainenakoen hezetasunaz jabetu da. Eskuari begiratzean, aldiz, ez du aparteko kolore bizirik ikusi. Fantasia atzera ere. Egoerari aurre egin nahian edo, papera eta boligrafo urdina hartu eta sentitzen duena hitzen bidez marrazteari ekin dio.

Denborak aurrera egin ahala, zeruko kontrastea ere itzaltzen hasten da, dena ilunduz doa, jertse gorria geritik kendu eta jantzi egin du. Luzaroan idazten jarraituko zukeen, baina jada ez dago bere hitzak argituko dituen eguzkirik.

Inork zorotzat har badezake ere, bizitzari bizitza bera baino gehiago ostu dion norbait izango delakoan dago Karmele. Badaki bai eskutitzak ez duela ustezko errealitatearen arrastorik eta gogamenera berba bakarra datorkionez, hiztegiara jo du.

Fantasia: irudimenezko edo fikziozko ikuspen irreal.

Sekula azpimarratu gabe duela konturatu da, izan ere, Karmelek badu bere ohitura propioa. Behin bilatzen duen hitza azpimarratu egiten du, horrela egunen batean hiztegi osoa azpimarratzen iritsiko delakoan. "Taka! Bat gehiago!". Mokadu txiki bat hartu ostean, leihotik sartzen diren azken eguzki printzek bultzatuta, kanpinerako bideraino hedatzen diren lautadetara joatea erabaki du, lasaitasunaren erreinua delako leku hartara.

Hutsik egon ohi da normalean parajea eta horrek askatasuna ematen dio. Inor inguratze hutsarekin, askatasuna murriztu eta lasai antzean hartu duen hutsa kutsatzen zaiola uste izaten du. Horrelakoetan, hiru joan-etorri egiten ditu zubia hasten den

lekuraino eta herrira itzultzen da bide zaharretik. Gaurkoan ere izan du gizon heldu bat alboan, alabaina, konfiantza eman dio, aurpegiko zimurrak zahartzaroak baino, barre asko egiteagatik izango dituela pentsatu du. "kaixo" batekin, "ederra eguraldia e! bai, aprobetxatzeko modukoa" esan diote elkarri, inplizituki bada ere. Bakoitzak alde banatara jo badu ere, irribarre salatari bat bota diote elkarri, ezkutuan, bizkarrera.

Anastasio olibondo baten itzalpean eseri da eta boligrafoa atera du poltsikotik, betebehar garrantzitsu bat izango balu bezala. Ezkerreko eskuan daraman makila albo batean laga du koademoa ondo eutsi eta letra txarrak ihes egin ez diezaion. Behin eta berriz ekin dio hasiera idazteari, baina, lehenengo aldia ez bezala, zalantzak izan ditu zer idatzi jakiteko orduan. Harriturik geratu zen erantzunik jaso ez zuelako, harriturik baina ez hain harriturik, bazekien bai guzti hura.... Ez du ordea birritan pentsatzerik nahi eta eguzki borobila ortzi-mugan bezala, hitzek eskuetatik ihes egin eta paperetan ezkututzen hasi dira. Karmelek dena ikusi zuen, baina ez zuen ezer ikusi; ez dago ikusi nahi ez duena baino itsuagorik.

-Azkena e! -haurrek, hala ere, badakite ez dela azkena izango eta harategiko tirekin jolasten jarraitu dute. Marisaren dendak aipatzeko ezer badu, hori sarrera da zalantza izpirik gabe. Ez dauka aterik eta honen ordeaz, plastikozko tira aunitz daude goitik behera lerroturik. Inor pasatzen ez denean, geldi-geldi mantentzen dira, zuzen. Baina, bezeroak sartzerakoan aztoratu egiten dira euren artean korapiloak eginez. Horixe da haurrei gehien gustatzen zaiena eta jolasean dihardute nork tira gutxiago mugitu pasatzerakoan. Primeran pasatzen dute aurrera eta atzera, okerrena epailearen lana izaten da, nork jakin zenbat tira mugitu diren horrenbesteren artean!

-Hirurehun gramo urdaiazpiko eta txorixo mutur bat, zerbait gehiago?

-Ez, beno bai. Emadazu han atzean dituzun rifa horietako bat.

-Jai batzordekoa?

-Bai, ekarri bi. Ea aurten zortetik dugun!

Erosketak etxean laga eta lanera abiatu da Karmele, nahia du beharrera goiz iritsi beranduegi baino. Atzo zerbaiten esperoan joan zen eta ez zuen ezer berezirik aurkitu. Gaur ordea, apalak txukuntzen hasi aurretik, zakarrontzia miatu du,



“ez dute zabaldu ere egin”, sinesgaitza iruditzen zaio horrelako zerbaitekiko kuriositaterik ez izatea. “Hitz berberekin hasten da!”, hasperen eta irrien artean irakurri eta “ baita amaitu ere” berretsi du. Kamelek dena daki, baina ez du ezer jakin nahi; ez dago jakin nahi ez duena baino ezjakinagorik.

Etxera bueltatu eta oheratu aurretik, zatirik gustukoena irakurri du behin eta berriz, begiek gehiago ezin dutela esan eta loak hartu duen arte.

Lehen musua eman zenidan olibondoaren azpian nagoelarik, jauregiko leihorik ederrena zabalik dakusat, hor zaude zu. Pentsakor dirudizu, aurpegia asaldatu zaizu eta sentikor nabaritzen zaitut, inguruan dituzun lautada guztien jabe egiten zara begirada iheskor batekin.

Batak badaki egiazko egiarik ez dagoela inon, alabaina, badaki jakin ere egiarik handienak ere gezurretik datozela, fantasiatik, izena izanetik datorren bezalaxe. Ez du ordea, ingurutzan duen mundu hipokrita honetan gezurrezko egiaurren makurtzerik nahi eta nahiago du bere fantasian tente bizi, pozik, zorionsu, gura duena soilik izaten. Horregatik behar bada, krudeltasun gordinetik datozen egiei ere uko egin eta iraganeko une batzuk eguneratzen ditu, komeni zaizkionak bakarrik. Maiteren heriotza, jaiotza izan da beretzat, pentsaera berri baten jaiotza, fantasiaren jaiotza. Bizi hobea irudikatzen dio bere emazte zenari, izan ez zuena itzuli nahiko balio legez.

Besteak ere badaki egiarik gordinenak min egiten duela eta ez du inoren fantasietan erortzerik nahi, baina atsegin zaio pixkanaka bereak bilakatzen ari diren fantasietan murgiltzea, astean pare bat eskutitz irakurtzea. Soka malgua irmotzen hasi denean, korapilatzen hasi da eta ez bata ez besteak ez daki korapiloak lotzen dituela.

Denok jabetzen gara errealitateaz, baina, guk geuk moldatutako errealitateak, fantasiak, gehiago asetzen gaitu. Fantasiak ferekatzen gaituenean, bizitzeari ekiten diogu. Horregatik, bizitza bizitzerik bada, leihotik begiratu eta zentzuzko ezer ikusi gabe, zentzuz betetako bizitzari zentzua aurkitzen dio norbanakoak.

Makuluaren laguntzaz zutitu eta laztandu egin du emaztearen argazkia, azpiko erretratu zaharra alegia. Hilerrri baterako alaiegia zelakoan, ez zioten eman bere argazki maiteena jar-tzeko baimenik. Maite bere azken egunetan zen bezalakoa nahi zuten hilkutxan jartzeko, gaixotasunak irentsita zueneko, bizitzak baino heriotzak gehiago identifikatzen zueneko. Anastasiok ezin zuen hori inondik inora ere onartu, “zertarako argazkia, kanposantura joaten naizen bakoitzean atsekabetuta bueltatzeko? Hobe behin joanda, umoretsu lasaitasunez, umoretsu bueltatu.” Argazki “ofizialaren” azpian ipini zuen bere benetako Maite islatzen zuena, olibondoaren azpian ageri zen emakumea bere soineko ederrenarekin, gorria, bizia, pasioz loratua. Haizeak apurtutako orrazkerak aurpegia are gazteago egiten zuen eta zainzuriak batzean azalak bereganatutako koloreak azken ukitua ematen zion, horrela besterik ez zuen ikusi nahi Maite, eta horrela ikusten zuen goiko argazkia kentzearekin batera.

“Zure gaztelu zaharrek gorderik duten antzina hats tristetan mintzo da haren mina.” Benitok bai, Benitok bazekien zer esaten zuen, pentsatu ohi du maiz. Jauregiak historia luzea dakar berarekin, Nafarroako erresumako erregeena, esaterako. Historia bera, ordea, hamaika aurpegi dituen burua denez, alde desberdin batetik ikusten du bakoitzak, eta horrek ematen digu irudikatze askatasuna. Horrelakoetan, jakinduriak belurtuta, ezjakintasuna seguruagoa bihurtzen da, hori bai, jakinduriarik gabe ezjakintasun asko hutsalak bihurtzen dira. Aukera desberdinak daude, horietako bat, fantasia, bizitzari zentzua bilatzeko funtsezkoa.

MAIALEN ARNEDO



“TXATEATZEN EZAGUTU DUT”

1989ko irailaren 27an jaio zen.

DBH 4.a ikasi du.

BESTE SARIAK: 2004an Mendaroko Literatur lehiaketan 3. saria lortu zuen.

Jasone Osoro eta Isabel Allenderen liburuak ditu gustuko.

Lehenengo aldiz jantzi du txapela Maialenek eta gustura dago. “Sorpresa haundixa izan zan, ez nuan espero. Poza eman zian” aitortu digu. Sariak segitzeko animoak ematen dizkio, idaztea “asko” gustatzen zaiolako. “Etxian nauanian, telebista ikusten aspertzen banaiz ordenagailura juten naiz idaztera. Edo koaderno bat hartu eta idatzi egitten dot askotan”.

Uste baino zailagoa egin zitzaion “Txateatzen ezagutu dut” gaiari heltzea. “Erreza ematen dau baina zerbait berezixa egiteko gai zaila da. Parte hartzaile ixa denek idatziko zuten maitemindu egiten dian pertsonen istoriua, gai tipikua dalako. Baina nik zehozter diferentia egin nahi naban. Ez jatan interesatzen denen berdina izango zan ipuina, pixka bat aldatutakua baizik. Eta hori irten zitzaidan”.

Hasierako ideiatik bilakaera izan zuen ipuinak. “Urte askotan elkarrekin egon arren, errealitatan ezagutzen ez zan pareja baten kontua neukan buruan, gero txat batian benetan ezagutuko zana. Hori zan nere oinarrixa eta gero gauzak sartzen jun nintzan. Minbiziana, adibidez, idatzi ahala sortu zan. Ondoren, gizon protagonista, kazetaria izatia erabaki naban, minbiziaz artikulo bat jarri ahal izateko, eta irakurlia zertaz zihoan istoriua konturatzeko”.

Gehien kostatu zitzaiona “zeri buruz idaztia erabakitzia eta hiztegixa inbentatzia izan zan. Gero, ja behin hasitza, errez asmau naban gainontzekua, bukaera ere argi neukalako”. Izan ere, Maialen zorrotza da idazterakoan. “Neri, normalian, hasiera ez bajata gustatzen, berriz hasten naiz. Eta gero, irakurritakua ez bajata gustatzen, berriz idazten dot. Beti horrela egitten dot”.

Apirilak 25. Goizalde eguzkitsua begien gozamenerako. Aldameneko zaharrak bere 8etako tokian jarraitzen du eserita beti legez. Zigarroa piztu eta leihotik begira jarri naiz. Asteburu honetan ez dut ezer egiteko asmorik, etxean geratu eta kitto. Maitek alboan beharko nau.

Emaztea ohetik altxa berri dago eta ez du oso aurpegi onik. Sukaldeko atea ere amorrutz ireki du. Berarengana urreratu eta hantxe dago negarrez, mahai ondoko ixkinan kukubilkaturik. Begiak malkoz beteta dituelarik begiratzen nau. Egunetik egunera bera galtzeko beldur handiagoa dut.

Berriz ere euria. Kafea, musika pixka bat eta ordenagailua. “Lanerako prest laguntxo?”. Eguneroko monotoniaren menpe; botoitxoari eman eta piztu da aparailua. 23:52 erlojuan. Artikulua dexente xamar dagoela dirudi. Leher eginda nago. Hainbeste idaztearen ondorio agian?

“Ba al zatoz?”- emaztea deika. Bulegotik irten eta logelarrantz abiatu naiz.

Biok gaude ohean etzanda eta ni ohikoa litzatekeen bezala bere alborantz hurbildu naiz. Berak etsipen aurpegiz buelta erdi eman eta “gabon” ziku bat esan dit. Lehengo garaiak ditut gogoan. Haren laztanak, ai laztanak! Bero eta xamurrak. Berak amasten zuen airea amastea besterik ez nuen nahi eta orain ez dago biontzako tokirik. Epeltasuna hotz bihurtu da jadanik, eta indiferentzia garaile da bion artean. Mina eragiten dit berarengandik urrun sentitzeak, haren maitasuna gure harremanetik at sentitzeak, bakardadea sentitzeak, sentitzeari usteak. Gaixotasunak aldatu du bera eta baita gure harremana ere. Argia itzali eta lotara.

Gaur ere berandu nabil. Korrika etxeko eskilarak jeitsi eta taxi bat hartu dut lanera joateko. Ez du euririk egiten behintzat! Erredakziora heldu eta noski, zuzendariaren oihuak nire belarrietan ate joka. Bukatu du azkenean!

Nire aulkitxoan eseri eta lanean hasi naiz. Internet Explorer. Klik egin eta barrura.

Azken albisteak, kirola, horoskopoa, txat-a., bai txat-a. Zergatik ez?

“Kaixo!” esan dit batek. Agur berarekin erantzun diot nik. Zer moduz gauden elkarri esan eta orain nor naizen itaundu dit. Izena ez esatea erabaki dut, eta ulertu du, berak ere ez dit berea esan. Ezizenekin ere konponduko gara.

Nahi gabe laneko orduak aurrera doaz eta nik hemen jarraitzen dut “Haizea”-rekin solasean. Denbora laburrean bere konfidantza transmititzea lortu du, berarekin hitz egiten halako ziurtasun bat sentitzen dut, inork eman ahalko ez zidana. Baina sentsazio arraroa da, gustura nago eta ezinegona dut era berean. Beldurra? Betiko hitza buruan. Ordenagailua itzali eta



joatea hoberena. Halaxe egin dut.

Ettxera iritsi naiz, gutxi gora behera betiko ordua da eta noski, ohikoa den bezala bulegorantz abiatu naiz; biharamunerako prest izan behar dudana lana bukatzera. Eta nor topatuko eta, nire emaztea! Hantxe dago aulkian eserita, mutu. Urduri xamar igartzen dut baina ez diot garrantzirik eman. Ez da ohar-tu ere egin hemen nagoela. Bere usaina nabarmentzen da gelan zehar eta haren arnas geldoa. Berarengana urreratu naiz eta eskuez aurpegia laztandu diot. Begiak zabal-zabalik dituela begiratzen nau, zerbait esan nahi baina ezin izango balu bezala. Bat-batean malkoa erori zaio masailan behera eta gelatik irten da. Ez diot jarraitu, ez dakit zer egin. Gerturatzen naizen bakoitzean uko egiten die nire laztanei, nire muxuei, nire hitzei.

Beno, ba, errutina bera jarraitzera; kafea, musika eta ordenagailua. Lana egiten hasi eta. txat-a berriz ere. Ez dago. Zergatik dut horrenbesteko interesa Haizearekin hitz egiteko? Zirrarak betetzen dit barrena beragan pentsatzen dudana bakoitzean. Momentu oro haren hitzak ditut gogoan, hain gara berdinak. Biok arazoz beteriko mundu giltzapetuan harrapatu-rik.

Norbaitekiko sentimenduak balantza batetan zintzilik eta gu haren erdian, zer egin jakin gabe. Bakardadearen beldur, bizitzaren preso.

Tik-tak. 04:00ak eta ni oraindik ilunpean buruari bueltak ematen.

Eskerrak emazteak ez duen nire ideien armairuan sar-tzeko betarik. Zer esango zukeen bestela? Ez. Ezin diot hau egin, maite dut.

Iratzargailuaren orratzak kristal puxkatu artean bilatzen ari naiz. Hementxe daude! Eman diodan kolpearekin ez nau harritzen apurtu izanak. Beno, bere urteak ere bazituen.

Gaur ere berandu lanera, betikoa. Ez dut lo askorik egin baina pozik noa, emazteak emandako muxuak alaitu nau.

Lanean berriz, egunerokoa berriz, txat-a berriz. Haizearekin berba egin eta buelta kaiolara. Hobeto pentsatu dut eta lagunak izatea ez da txarra, ez nago nire emaztea engainatzen. Ettxera iritsi baino lehen farmaziatik pasa naiz.

-Arratsaldeon Martin!

-Berdin Luisa- neuk ere agurtu dut.

-Betikoa? - itaundu diit.

-Bi kaxak iritsi al dira ala? Medikiak gehixeago atzeratuko zirela esan zidan- harrituta.

-Bai, hala da. Baina medikuak zure emaztearentzako zirela eta, hala nola lortu omen ditu, badakizu nola estimatzen zaituzten biok Maite horrela dagoenetik..

-Bai. Beno emaitzidazu. Zenbat da?- galdetu dut ihesbide gisa.

Ordaindu eta etxerantz joan naiz. Egoera deserosoa izan da niretzat. Nahiz eta nire emazteak gaixotasun larria duela jakin nahikoa dut etxean min hori jasan eta kalean neuretzat gordetzea. Barrenak irakiten dit nire emaztea negarrez ikusten dudana bakoitzean. Nik laguntzea besterik ez dut nahi, baina, berak nigandik urruntzen dena lortzen duela uste du.

Urriak 21. "Haizea"-rekin nago. Asko harritu nau hilabete guzti hauetan berarekin lagunarteko harremana mantentzeak. Hala ere biotako bati ere ez zaigu gaizki etorri. Zeozer gertatu zaigunean edo aholkuren bat behar izan dugunean bata besteari laguntzeko prest egon gara. Berak ere minbizia duela esan diit, Maitek bezala. Egunero egiten dugu berba, lan orduetan noski. Gero etxera bueltatu eta betikora. Negarrak, oroitzapenak, haserreak, nahikoa da! Ezin dut gehiago jasan! Ez dakit zergatik baina txat-eko laguna etorri zait burura.

Berarekin geratu naiz 19:00etan Boulevard-ean. Ongi egin al dut? Bost gutxiago dira eta urduritasunak barreiatzen dizkit zainak. Nola ezagutuko dut? Beno ikusiko dugu, ikusiko dugu,... jende asko ere ez dago eta. Uso nazkagarri hauek ez naute bakean uztean, joango al dira egunen batean demonio! Kanpora urduritasuna!

Gona motz xamarra, alkandora txuria, hantxe dator. Ez! Nire emaztea da.

Elkarri begira gaudela korrika hasi, eta besarkada batean amildu gara malkoak lagun ditugularik. Orain ulertzen dut guztia. Bera zen txat-eko neska.

-Zergatik Haizea?- galdetu diot lasaitu garenean.

-Inoiz ez duzu pentsatu haizea bezalakoa izanda libre izango ginatekeela?

Libre! Bai hitz polita.- gogoz esan du.

Urtarrilak 13. Lanean; kafea, musika eta ordenagailua. Idazten hasi naiz.

"Ordenagailua izaten da lanean hasteko behar izaten dudana arma bakarra, nire konfidentea eguneroko jornada luze-etan. Baina orain konturatu naiz niri hortarako baino gehiago ere balio izan didala. Ez duzue inoiz pentsatu maite duzuen pertsona hori ezagutzen zenuela uste eta sentsazio hori ezabatzen doala? Eguneroko bizitza monotonia soila besterik ez dela? Ba nik tramankulu honi esker sentimendu horiek nire albotik urrundu eta gehien maite dudana pertsona benetan ezagutzea lortu dut. Txat-ean ezagutu nuen benetako Maite. Gogoan zaitut, maitia. Haizea izan nahi zenuen, orain bazara. Muxu bat."

DORLETA FERNANDEZ



“HIRU DESIO”

1991ko abuztuaren 10ean munduratu zen.

DBH 2.a gainditu du.

Harry Potter-en liburuen zalea da.

Lehenago idazlanak aurkeztu arren, Dorleta aurten atera da garaile estreinekoz, gerra egoeran kokatutako narrazioari esker. “Beste ildo batetik hasi nintzan baina ez zitzaidan irtetzen. Egun batzuk pentsatzen egon ondoren, azkenian gerrari buruz egittia pentsatu naban”. Istorioa ez dago, ordea, Iraken lekutua. “Irak-en gerra dagoela eta ixa egunero jendia hiltzen dala badakitt baina ez dot inon informaziua bilatu, dana nere burutik irten da” esan digu.

Protagonistak hiru desio eskatuko ditu gudaren erdian. Gerra giroa nolakoa den azaltzen du Dorletak. “Pertsonaiaren etxia deskribatuz, adibidez. Interesgarria izango zala pentsatu nuan. Inbentau egin dot, nik ez dakitelako zelan bizi dian halako egoeran baina ahal zuten moduan egindako etxola bat zala jarri nuan. Gero, baita ere, anaia gerran dagoela adierazten duan karta bat dao”.

Berak nahiago du irakurtzea idaztea baino. “Irakurtzia idaztea baino gehixao gustatzen zait. Egunero irakurtzen dot zertxobait. Eta oporretara ere eruaten dot gustatzen zaidan libururen bat, abenturazkua edo intrigazkua. Kurtsuan zihar irakurri bihar dian liburuak nahixago dot oso astunak ez izatia. Baina, oporretan, potolauak ere irakurtzen dittut, denbora gehixao daukatelako”.

Erderaz irakurtzeko joera dauka. “Ez dakitt zergatik. Liburuak erderaz hobeto espresauta daudela iruditzen jata batzuetan. Liburutegira zuaz eta erderaz askoz liburu gehixao daukazu aukeratze-ko euskeraz baino. Orduan, erreza da zuk nahi dozuna topatzia”.

Oh ez! Berriro ez! Nahikoa da!

Gure etxe zaharra berriro estaltzen hasi beharrak amorrubizia eman zidan. Urte betean askotan eginiko lana izan zen baina, orain aita gaizki zegoen. Larri, oso larri eta nik neuk bakarrik egin behar nuen lana, amak ezin baitzuen ezer egin eta lau anaiak... hobe hauekin ez kontatzea ez baitzekien non zeuden ezta noiz itzuliko ziren, itzuliko baziren noski.

Gure hogeit metro karratuko etxetik irten behar izan nuen irratitik berria entzutean: “Amerikarrak berriro gainean dauzkagu! Hartu itzazue beharrezkoak dituzuen gauzak eta ihes egin! Eraso hau oso gogorra izango da guztiarentzat.” Albistea begibistakoa zen. Lau egun generamatzen erasorik jasan gabe eta orain, dena kolpera, baina, ihes egin? Nork zuen ihes egiteko gogo? Guk behintzat ez. Gure etxean bizi izan genituen bizitzako unerik zoragarrienak eta baita txarrenak ere. Gure hogeit metro karratuko etxetik ez genuen alde egingo. Gainera, ihes egiten saiatzen ziren guztiak akabatu egiten zituzten amerikarrak beraz, hobe etxean gelditzea.

Kanpotik etxea, egurrezkoa zen eta metal orri luze batzuek estaltzen zuten. Teilatu bezala, plastiko gogorrezko hiru zati zituen, laugarrena, azken erasoan hautsi eta kendu egin behar izan genuelako. Etxera sartzeko, ate antzeko bat zegoen berdez pintaturik eta hau zeharkatzean, ez zegoen gauza handirik. Aurkitzen zenuen lehen gauza logela erlijioso bat zen. Hau, orain gutxi jarria zegoen, aita gaizki jarri eta gero. Orain ezin zuen gure jainkoa erregutzero eta bere desioak eskatzera joan, eta horregatik jarri genuen horrelako bat etxean. Gela ez zen oso handia. Bost metro karratu izango zituen, baina hori bai, oso apaindua zegoen. Kandela asko zeuden gure jauna Aláren argazki baten inguruan eta pareta koadro sinboliko askoz jantzita zegoen. Gelaren erdi erdian, alfonbra luze bat zegoen gure aitak hor erreza zezan.

Aurrera jarraitzen bazenuen, sukalde antzeko bat aurkitzen zen. Hau elektrodomestiko gutxi eta zehar batzuek osaturik zegoen. Mikrouhin zahar bat, irrati bat, hondatuta zegoen hozkailu bat eta zertxobait gehiago. Ur txorota era bagenuen baina ez zigun askorako balio zeren eta azken hilabeteotan ura ordaintzeko dirurik ez baitzitzaigun geratzen eta horren ondorioz ura kendu zigutelako.

Azken logela, handiena zen. Hamar bat metro karratu izango zituen eta gela honetan pasatzen genuen ia egun guztia



erasoak nagusi zirenean. Hiru sofa txikiz eta erdiko alfombra borobil batek bakarrik osatzen zuen gela. Erdiko sofan aita egoten zen eta bi alboetan ama eta ni, baina, aita gaizki jarri zenez aldaketa batzuk izan ziren. Nire sofa eta aitarena batera jarri genituen aita hobeto sentitu zedin eta ni, manta batzuez estalirik lurrean egoten nintzen. Ohituta nengoen ordurako hilabete oso bat pasatu baikenuen egoera hartan.

Etiket irten nintzen eta etxea egurrez eta beste material gogor batzuez estaltzen hasi nintzen. Gure ondoko bizilagunek ere berria entzunda zuten, hauek ere berdinean ari baitziren. Segituan amaitu nuen nire egitekoa jadanik ohituta bainengoen lan hau egitera. Ahal bezain azkar etxera itzuli eta ama erostak egitera joan zen ni aitarekin gelditu nintzen bitartean. Momentu hartan memoria egiten hasi nintzen. Aita gaizki jarri zen eguna ondo gogoratzen nuen. Ama eta ni etxean geunden bazkaria jartzen eta aita etxerako behar genituen egur batzuen bila joan zen. Orduan gertatu zen. Amak eta nik irratian entzuten genuen. Amerikarrek gizon bati tirota eraso zioten. Ama eta ni ez ginen larritu egunero horrelako zerbait gertatzen baitzen baina gizonari buruzko datuak ematen hasi zirenean, ama eta ni korrika betean etiket irten eta egur dendara abiatu ginen korrika bizian. Aita han zegoen lurrean botata eta odolez bustia. Amak eta nik anbulantziari deitu eta aita ospitalera eramane genuen. Han ere iskanbila handia zegoen. Odola eta beldurra zen nagusi ospitaleko korridoreetan zehar. Andre zahar asko negarrez ikusten ziren eta haur txiki asko kamiletan etzanda eta aitaren antzera odolez jantzita. Nik beldurra nuen amak kanpoan itxoiteko esan zidanean baina gogor plantak egin nituen amari negar malkoa aurpegia zeharkatzen ikusi nionean. Aita eta ama kontsultara sartu ziren eta ni bitartean kanpoan pentsakor gelditu nintzen eta orduan izan zen aitaren irudia irribarre handi batekin ikusi nuen unea. Aita eta ni bakarrik geunden. Atzean mendixka berde eta eder bat zegoen eta aitak bera ez egotean ama zaintzeko esaten zidan. Nik zoriontsu baietz esaten nion eta berak orduan, lepoa bere beso sendoekin inguratu eta emozioari eutsi ezinik malkoak salto egiten hasi zitzaizkiola konturatu nintzen. Orduan nekien zein zen nire eginbeharra: ama eta aita zaintzea. Oraindik ez nekien gauza handirik umea bainintzen baina ikasteko prest nengoen.

Bat-batean, atea zabaldu eta ama negar malkotan medikuaren kontsultatik ateratzen ikusi nuen. Atzean aita zetorren baina orain besoa bilduta zeukan eta erruberadun aulki batean zetorren. Ez zuen oso itxura ona. Orain bost minutu hau ikustean behera etorriko nintzen baina orain banekien zer egin

behar nuen eta azken gauza behera etortzea zen beraz aitaren gurgildun aulkia hartu eta tira egiten hasi nintzen amari etxera joateko esaten nion bitartean. Honek ez zuen ezer esan baina nik banekien nire laguntza eskertu zidala bere barnean bazen ere eta niri horrek nire bihotz txikia pixka bat gehiago poztu zidan.

Atea entzun zen orduan eta horrek ama etxean sartu zela esan nahi zuen. Bi poltsa zituen eskuetan eta aita eta bioi agurtu ondoren sukaldera joan zen poltsak hustu eta bazkaria jartzera. Deitu eta aitari bere medikamentuak emateko esan zidan. Nik, txintik ere protestatu gabe baietz egin nion buruaz eta aitari bere sendagaiak ematera joan nintzen.

Aitaren sendagaiak oso garestiak ziren herrian ez baitzegoen farmaziarik eta kanpotik ekarri behar baitzituzten. Aitari eman beharrekoa ez zen gauza handia baina egun baten zerbait ahazteak ondorio larriak izan zitzakeen. Hauek ziren eman beharreko sendagaiak: pastilla batzuk minaren aurka eta ezkerreko hankan ziztada bat. Azken hau ez nekien zertarako zen baina eman beharra neukala banekien zeren eta amari egun baten ahaztu egin zitzaion eta ia-ia aita beste auzora joan zitzaigun.

Aitari sendagaiak eman ondoren, egunero bezala erreztzera eramane nuen etxeko gela apainduenera. Han, lurrean eseri nuen eta atetik irten nintzen bera lasaiago uzteko eta berak nahi zuena esateko. Ni bitartean, irratia piztu eta amari bazkaria jartzen laguntzera joan nintzen.

Irratian entzuten zena gero eta larriagoa zen. Amerikarrak erasotzen hasiak ziren eta jadanik bost ume hil eta hamar gazte larri zauritu zituzten. Ama, orduan oso larrituta ikusi nuen. Ez nuen zergatia ulertzen ez baitzen oso arraroa horrelako berria entzutea. Bat-batean, ama sukaldetik irten eta korrika batean egongelara joan zen negar malkotan. Ni bere atetik abiatu nintzen zer gertatzen zitzaion argitzera eta bere eserlekuan aurkitu nuen. Beldurtuta ematen zuen eta nik zer gertatzen zitzaion galdetu nion. Honek hasiera batean ez zidan erantzun nahi izan baina gero konturatu zen nik zer gertatzen zitzaion jakin behar nuela eta ezin zuela horrela negarrez jarraitu. Beraz, negar malkoak eskuaz kendu eta pixka bat baretu ondoren hitz egiten hasi zen.

Oso triste zegoen baina bere aurpegian beldurra zen nagusi. Bat-batean hitz egiten hasi zen eta bere bizitzan lehenengo aldiz egin zuen gauza batek poz handia eman zidan: gizon bati bezala hitz egin zidan lehen aldiz. Poztasun hark ez zuen

asko iraun zeren eta eman behar zidan berria ez zen oso pozgarria. Soldadu bezala joan behar nuen nire anaiak bezala. Orduan ulertu nituen nire amaren negar guztiak baina, hori ez zen dena: amari berria, postetxean eman zioten baina eskutitz bat ere eman zioten. Eskutitzaren kartazala zaharkituta zegoen eta amak irekita zegoen jada. Orduan, amak kartazala eman eta irakurtzen hasi nintzen. Anaia handienak idazten zuen eskutitza eta zera esaten zuen bertan:

"Guraso eta amaia maiteak:

Jasan naiz anaia zaharra. Zer moduz hortik? Hemen gauzak okerrera doaz. Gero eta gutxiago gara eta amerikarren bonbak oso gogorak dira gure armentzako. Johan anaia, taldearen buru da lan asko egin baitu azken urteotan, Zahar bere laguntzailea da eta oso ondo ari dira moldatzen biak eta Kalifri buruz hitz egiteko idatzi dizuet. Eskutitza idazten ari naizen bitartean negar malkoak eutsi ezinda nabil. Kalifk atzo amerikarrak tirokatu eta bi ordu koman egon ondoren utzi egin gaitu. Gaur izan dugu bara lurperatzeko baimena eta negar malkotan lurperatu dugu berak gogor eta tinko borrokatutako lurretan. Orain bakean da uso txuri eta aske bat bezala eta guk hementxe jarraituko dugu beragatik eta zuek hirurongatik gogor borrokatzen. Espero dut laster hau dena bukatzea eta etxera joan ahal izatea.

Muxu asko

JASAN"

Nik ere ezin izan nituen negar malkoak ezkutatu eta amari beldurrez beterik heldu nion. Ez nekien zer egin eta dena amets txar bat izatea nahi nuen. Zoritxarrez ez zen horrela izan eta begiak zabaldu nituenean denak berdin jarraitzen zuen. Aitarengana abiatu eta gertatutakoa kontatu ondoren honek ez zuen negar egin. Ez nuen zergatia ulertu baina hala izan zen. Orduan, aitak begietara begiratu zidan ospitalean gogoratu nuen bezala eta oraingo honetan gogorra izateko eskatu zidan eta gizon batek bezala jokatzeko esan zidan. Nik, nire negar malkoak begietatik kendu eta buruaz baietz esan nion eta berak Alá jainkoari nahi nuena eskatzeko esan zidan. Nik, alfonbran etzan eta zera eskatu nion:

"Alá, emaiozu zoriona herri honi eta batez ere familia honi, inoiz ezer txarrik egin ez duelako, ez utzi aita eta amari ezer txarrik gertatzen, nahikoa sufritu baitute beraien bizitzan zehar eta azkenekoz, emai guzu bakea herri guztiei."

Hau esatean askoz ere lasaiago gelditu nintzen. Ez dakit zergatik, ez dakit Alá-k entzun zidan ere baina badakit ama eta aitaren konfiantza nuela eta goiz edo berandu amets gaizto hura bukatu egingo zela.

MIKEL OLAIZOLA



“TELEBISTAN AGERTU NAIZ”

1991eko ekainaren 2an jaiotakoa da.

DBH 2.a ikasi du.

BESTE SARIAK: Aurten, Sabino Arana bertso paper lehiaketa irabazi du eta Azkoitiako Xabier Muniberenean bigarren izan da. Horrez gain, Gipuzkoako Eskola arteko txapelduna da bertso paperetan, eta bat-bateko jardunean Euskal Herriko eskola arteko txapeldunordea.

Unai Iturriaga du gustuko bertsolarien artean.

Telebistan agertzearen ondorioak jarri ditu paperean. Horri esker jantzi du txapela bigarren aldiz Etxegiña lehiaketa honetan. “Telebistak fama eman ahal dizula, baina hori beste gauza batzuren kalteetan izan leikela esan nahi nuan bertsuekin. Balantzan jarri bihar diala fama edo bizitzan daukazun beste gauza guztixak, ia zein dan hobia”.

Bat-batean nahiz bertso paperak idazten aritzen da Mikel. “Ni bixetan gustura jarduten naiz. Ezin dot bat aukeratu. Diferentiak dia. Idatzizkua, gehixo landu ahal dezu, lasaittasun gehixo daukazulako egitterako orduan. Idatzizkuak erregularraguak izan ahal dia, akatsik gabekuak. Eta bat batekuak, aldiz, bata, akas-duna eta gero beste bat oso ona. Idatzizkuetan gustura geratzen naiz, baina bat-batekuetan ere bai”.

Jende aurrean kantatzeko tenplea hartzen ari da apurka-apurka. “Behin hasita, agurra egin eta gero, lasaittu egiten naiz. Gipuzkoako kanporaketan bastante nerbio egon nintzan, saio horretan dana zavalako jokuan, finalera pasau ala ez. Baina Gipuzkoako finalian eta Euskal Herriko txapelketan ez nintzan hain nerbio egon”.

Bertso neurriei dagokionez, argi du aukera: “Bat-batekuetan bertso motzak nahixago diitut, bestela, denbora asko bihar da eta jendiari ez zaio asko gustatzen. Baina idatzizkuetan luziak eta errima asko daukatenak aukeratzen diitut, ideia gehixo erakusteko eta gehixo sakontzeko”. Doinuetan, Habanera “bastante” erabiltzen duela aitortu du eta Lazkao Txiki zenarenak ere gustatzen zaizkiola.

Doinua: Munduan libre bizi izatea

Diruagatik , morboagatik
ta lagunek bultzatuta
telebistara hurbildu nintzen
lotsa guztiak galduta
famatu baten kontu lizunak
bertan argitaratuta
orain ezin naiz ezkuta
mehatxuez beldurtuta
diru ugari lortu dut baina
nago guztiz damututa
diruagatik geratu bainaiz
duintasuna salduta

Fama lortu dut famatua naiz
beste askoren antzera
zer da ba fama , zer aldatzen du
famak bizitzan hobera
gainera fama eros daiteke
ta oso merke gainera
Interviun edo atera
joan programa batera .
Ta gogoetak izan ondoren
hor doa nire galdera :
fama , lagunak ta familia
baino hobea ote da?

Telebistako programa hoiek
jan ohi digute burua
baina sarritan izan ohi dira
gure dibertimendua
dirua lortu hori daukate
finkaturik helburua
izan naiz artaburua
baina badaukat damua
bizi berri bat hasi nahi nuke
hobetu dadin mundua
duintasunez bizia eta
telebistaz aldentua



“EZIN NAIZ LOKARTU”

1988ko maiatzaren 2an jaio zen Mendaron.

Elgoibarko Institutuan Batxilergoko 1.a ikasi du.

BESTE SARIAK: laz, eskola arteko bertso paper lehiaketan saritu zuten eta aurten Urruzunoko bertso txapelketan. Literaturan, aldiz, iazko Mendaroko idatz lehiaketa irabazi zuen.

Andoni Egaña du eredu bertsotarako.

Bi sariak, lehenengoa eta bigarrena, bereganatu ditu Maialenek bertso paperen nagusien mailako lehiaketan. “Aurrenengo, bigarren sarixa lortu daban lana egin nuan eta ez nintzan oso gustora gelditu. Ondiok denboria nakanez, beste bertso batzuk egitten saiatzeko esan zian irakasliak. Beste gai bat hartuta idazten hasi nintzan eta ondo atera zitzaizkiten. Ja bixak eginda eukita, bixak bidaltzeko esan zian irakasliak. Hala egin naban eta harrittuta gelditu nintzan bi sarixak irabazi nittuala jakin nuanian sari banaketan. Sari bat hartzeko asmuakin etorri nintzan eta bixekin jun nintzan etxera”.

Amodiozko gai korapilatsua joratu du. “Mutila gaisorik dao eta laster hil egingo danez, neskiari esaten dio ez dabala nahi berari lotuta eon dadin. Lagun bezela euki nahi du baina ez du nahi beragatik sufritzen ikustia. Baina neskiak ez du onartu nahi mutila hil egingo dala eta danan gainetik berarekin egongo dala esaten dio”.

Ez du ukatu gaia “piska bat tristia” dela. “Beti jotzen det gai tristietara. Sentimentuak-eta adierazteko errazauak dia”, arrazoitu du.


Duela bi urtetik, estreinekoz lehiaketa hau irabazi zuenetik, hobera egin du bere bertsogintzak. “Orduan, bertso simple samarrak egin nittuan, pasatzen zana esplikatuz. Orainguan, bost bertso idatzi bihar zian eta gehixo sakontzeko aukera ematen zaben. Irakasliak ere esan zian bertso hauek sakonauak dala, gehixao landuta daudela”.

Doinua: Leiho ertzetik

- 1) Oraindik ere nigan bizirik itsas ertzeko freskura, gogoan daukat zure begien gaur arratseko itxura zure bamean zerbait bazela bi segundotan kontura, hitz orok zeraman duda bihurtu nigan ardura (bis) laztanen bidez, argi ta garbi, azken muxua heldu da, muxu horrekin iragaziaz nire bamera tristura (bis)
- 2) Bi hilabete, besterik ez da nire aurrean dudana hitz labur hoiek bihotza bitan bat-batean erdibana, bere besoa apal ta mantso, hurbildu du niregana; hau sendotasun bakana nigan amildu da dana! (bis) erreka batek ura modura gaixotasunak darama, orain datorren garai honetan ez gaitezen sakabana (bis)
- 3) Segundu oro ihesi doa nahiz amestu geldi dadin, etorkizuna eraiki eta bizitza berri bat ekin hori entzunda nire bamean oihu sarkor bat eragin bihotza bihurtu burdin : erantzuna eman ezin (bis) geratzen dena goza dezazun egingo dut nik ahalegin, azken muxua eman artean hor izango naiz zurekin (bis)
- 4) Zeru oskarbi magiko honen jagole nauzu leihotik, sorgin ororen dantza eroan sarri gaude murgildurik; esku artean zure jertsea maitasun osoz harturik ez dut ikusten mugarik nahiz dena den lainoturik (bis) maitasun aske baten partaide bihotzean nauzularik, nire bamean iraungo duzu hortan ez dut zalantzarik (bis)
- 5) Maite duzuna ikuste hutsa opari dela ohartu haize boladak itsas bazterra fereka batez zakartu, baina ekaitzek ezin gaituzte hots huts batez gu lokartu; borrokari aurre hartu, indar guztiak elkartu (bis) gau izarratu honetan preso ez dut nahi ohean sartu, zure alboan nagola soilik gaur nahiko nuke lokartu (bis)

ION LIZARRALDE HARITZ EDT-KO ZUZENDARIA

«Interneten begiratu behar izan nuen Tuvako Errepublika non dagoen»



Uztailaren 22an, barixakuan, ospatuko da Nazioarteko Folklore Jaialdia Olaizaga kiroldetxean (22:30). Kolonbiako eta Tuvako Errepublikako dantzariak arituko dira Haritzekoez gain. Ion Lizarralde Haritz Euskal Dantzari Taldeko zuzendariak eman digu argibide gehiago.

👉 **Tuva eta Kolonbiako folklorea ekarriko duzue aurten. Nola erabakitzen duzue nor ekarri?**

Portugaleteko Elai-Alai Dantza Taldeak ekartzen ditu talde guztiok bertan egiten den folklore jaialdirako. Zazpi edo zortzi herrialdeetako folklore ikuskizunak ekartzen dituzte eta hauek kontratazeko aukera dago. Daukagun harremanari esker, urtarrilean jartzen naiz beraiekin kontaktuan, interesatzen zaizkigun taldeen berri emanez. Eskaera handia dagoenez ahalik eta azkarren egitea komeni da.

👉 **Aurtengo taldeen inguruan aipatzeko modukorik?**

Tuvako Errepublika non zegoen ere ez nekien eta interneten begiratu behar izan nuen. Aisialdirako baino, eritu edo gai magikoetarako erabiltzen dute musika. Instrumentu bitxiak ekarriko dituzte eta folklore xamanikoaren, Tuvako herritarren kulturaren osagaia, erakustaldia eskainiko dute. Kolonbiarrek 28 instrumentu ekartzeko asmoa dute eta herrialdeko dantza eta musiken ibilbidea eskainiko dute.

👉 **Zer eskainiko du Haritzek?**

Uztarrotzeko eta Isabako Titun-Titunak eta Otsagabiako dantzak egingo ditugu lehen zatian. Bigarren zatian Bizkaiko dantzak taularatuko ditugu. Lanestosa, Bizkaia eta Kantabriako mugatik gertu dagoen herriko dantzak eta Durangaldekoak, hain zuzen ere.

👉 **Denbora asko ematen al duzue saioa prestatzen?**

Lehenengo urteetan demaseko ilusioarekin hartzen zuen jendeak eta erotu egiten ginen. Orain lasaiago hartzen dugu. Gipuzkoako dantzen teknikak lantzen ditugu urtean. Zuberotarrekin batera teknika zorrotzena eskatzen dute, eta behin dominatuz gero, beste dantzak erazago menperatzen dira.

👉 **Zer hartu eman izaten duzue kanpotik datozen taldeekin?**

Batere ez, apenas baitago denborarik. Hizkuntzaren oztopoaz gain egunean bertan iristen dira eta prestakuntzetan joaten da denbora.

👉 **Gogoan duzun ikuskizun bat?**

Akordatzen naiz urte baten argia joan zela eta talde bat, errumaniarrak zirela uste dut, instrumentuak jotzen hasi zen. Ikusleak girotzea lortu zuten. Ahazteko modukoetan, berriz, Egiptoko talde bat denboraz izugarri pasa zela gogoan dut. Beste taldeekiko errespetu falta da. Bi ordutan errenditu nahi izaten dugu jaialdia, bestela luze jotzen baitu.

👉 **Nongo folklorea atsegin duzu?**

Duela urte batzuk danbor doinuekin etorri zen Afrikako talde bat asko gustatu zitzaion jendeari. Sobiet Batasuna zenaren ostean sortutako herrialdeetako folklorea ere gustuko dut. Dantza oso fisikoak dira, ikusgarritasun askokoak.

«Kanpoko taldeekin apenas dugu harremanik, astirik ez baitago»

Mendaroko karaokea Santana jaietako egitarauan tradizio bihurtu da. Sekulako arrakasta izaten du ekitaldi honek. Gaurkoan, azken urteotan taula gainean hutsik egin ez duen Patricia Navo ekarri dugu gure artera. Esan digunez, oso ondo pasatzen dute, lagun artean aurkezten dira eta sari bat baino gehiago irabazi dute. Aurten zer egingo duten oraindik ez dute erabaki.

PATRICIA NAVO

SANTANA JAIETAKO KARAOKEKO PARTAIDEA



«13 urterekin hartu genuen parte lehenengo aldiz jaietako karaokean»

• Nola hasi zineten Santana jaietako karaokean parte hartzen?

Karaokea aspalditik antolatzen da Mendaroko jaietan, tradizio bat da, eta guk beti parte hartzeko gogoia izaten genuen. 13 urte genituela animatu ginen estreinako karaokean parte hartzera, eta ordutik ez dugu hutsik egin. Iaz duda handiak izan genituen, jendea falta zitzaigun, baina azkenengo momentuan eszenatokira igotzea erabaki genuen. Gainera, parte hartzeagatik dirua ematen dute, eta oso ondo etorri zitzaigun parrandarako.

• Zein abestirekin estrenatu zineten?


Spice Girls taldearen abesti bat interpretatu genuen,

TOKI-ALAI
JATETXEA

*Santa Ana jaietan
enkarguz egingo dugu lan*

Mendarozabal, 2 behea • Tel.: 943 75 60 72

M
E
N
D
A
R
O



Tel.: 943 03 36 22 • Mugikorra: 600 44 02 55

garai hartan oso modan zegoen. Bi hilabete pasatu genituen asteburuetan entsaiatzen eta ez genuen ezer irabazi. Pena izan zen.

• **Asko enteiatzen al duzue?**

Ez, lehenengo aldiari bai, baina lortu genuena ikusirik, ondorengoetan ez dugu ezer prestatzen. Pare bat aste lehenago pentsatzen dugu aurkeztuko garen edo ez, eta azkenengo momentuan erabakitzen dugu abestia, janzkera... afaldu, lagunaren baten etxean prestatu eta abestera ateratzen gara.

• **Arrakasta handia izaten du, ezta?**

Bai, jende askok hartzen du parte, eta ikustera ere jende mordo etortzen da, gehienak mendarotarrak, baina kanpotik ere etortzen dira. Oso polita izaten da, eszenatoki gainetik aurpegi ezagun mordo ikusten dira, eta oso ondo pasatzen da.

• **Ez al dizue lotsarik ematen?**

Hasieran pixkat ematen du. Lehenengo urtean pasatu nuen lotsarik handiena, gauza berria zen, ondo egitea nahi genuen... Hainbeste preparatu ostean ez genuen gaizki gelditu nahi. 13 urte genituen... Baina gero eta gutxiago ematen digu.



• **Saririk irabazi al duzue?**

Bai, lehenengo urtea eta iazkoa kenduta urtero lortu dugu sariren bat. Hiru sari egoten dira, eta pare bat aldiz lehenengo saria ere lortu izan dugu.

«Modan dauden abestiak interpretatzen ditugu ikusleak animatzeko»

• **Zein motatako abestiak interpretatzen dituzue?**

Denetarik. Estilo guztietako abestiak kantatu izan ditugu, baina beti modan dagoen abestiaren bat aukeratzen dugu, jendearentzat ezaguna dena: Dana International, Ricky Martin, Niña Pastori...

• **Espektakuluaren munduan ondo moldatzen zarete, beraz...**

Baietz ematen du! Iazko Santana jaietan mozorro lehiaketan hartu genuen parte, eta lehenengo saria eman ziguten! Asko gustatu zitzaigun, eta aurten ere aurkezteko gogoak geneukan, baina kendu egin dute! Pena bat izan da. Ez zuen jende askok parte hartu, baina lehenengo urtea izan zen. Antolatzen jarraitu beharko luke jendea animatzeko.

• **Aurtengo jaietarako pentsatu al duzue ezer?**

Oraindik ez, eta ez da denbora askorik gelditzen. Ez dakit, gazteei ere utzi beharko diegu lekua, ezta?

«Eszenatokitik aurpegi ezagun mordo ikusten dira»



Lasaitze

Osteopatia eta estetika

Ondo pasa jaiak!

Kilimon etorbidea, 3 • MENDARO
Tel.: 943 75 51 94



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta hainakako terapia)

PSIKOLOGIA

• **HARREMAN ARAZOAK:** bikotearekin, familiarekin edo kideekin
• **LUMEN ETA NERABEEN ARAZOAK**
• **ANTSIETATEA**
• **DEPRESIOA**
• **ESTRESA**
• **ELIKADURA ARAZOAK**
• **AUTOESTIMA**

miriam majika 675 61 78 55 AURKIDIA IZATEAN
alinoa basurko 615 70 37 25 IZATEAN BAIHA-1.

Platerari Tiro Txapelketa

Kilimon Zahar Ehiza eta Arrantza Elkarteak Mendaroko Udalaren laguntzaz antolatuta, bihar, uztailak 16 larunbata, Santana jaietako Sari Nagusia Platerari Tiro Txapelketa jokatu da Larraskandako zelaian. Txapelketa arratsaldeko 16.30ean hasiko da, eta entrenamendu saioak eguerdiko 14:30etik arratsaldeko 16:30era izango dira. Parte hartzea nahi duten bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte (platerak barne), eta gainontzekoek 20 euro (platerak barne).

J.M. Riaño eta Matilde Idiakez balkoi lehiaketako irabazle

Debegesak antolatutako IV. Balkoi Apainketa lehiaketako irabazleak Jose Mari Riaño eta Matilde Idiakez izan dira Mendaron. Epaileak eskualdeko herri guztietan ibili dira balkoiak ikusten, eta Mendaron Azpilgoeta 10eko 3. pisua saritu dute, baina eskualdeko irabazle nagusia Mutrikuko bizilagun bat izan da. Sarituek 100 euroko erosketa txeketa jasoko dute, lorezaintza alorreko dendetan materiala erosteko.

UZTAILAK 17, IGANDEA

Zahartzaroari Omenaldia ekitaldiz josita



Aizpe Elkarteak Mendaroko Udalarekin elkarlanean antolatuta, Zahartzaroari omenaldia egingo zaio datorren igandean, uztailaren 17an. Ekitaldi honetan 70 urtetik gorako mendarorak omenduko dituzte.

Ekitaldi desberdinak

Mendaroko nagusiak omentzeko eguna ekitaldi desberdinez josita egongo da. Goizeko 11:00etan hasita, Mendaroko txistularien kalejira izango da, beraz, heritarrek txistu doinuez gozatzeko aukera izango dute. Ondoren, eguerdiko 12:00etan omenduentzako meza egongo

da Goñati pilotalekuan. Meza bukatu ostean, Mendaroko Trikitixa Eskolako ikasleen dantza erakustaldia izango da eta arratsaldeko 14:30ak aldera Aizpe Elkartearen egingo dute bazkaria, bertsolari eta trikitilariak alaituta. Ekitaldi hauetan parte hartzeko 70 urte eginda eduki behar dira, baina bikotekideak adin hori baldin badauka biek parte hartu ahal izango dute.

Zahartzaroari Omenaldian egingo den bazkarian parte hartu nahi dutenek Kutxa, Lagun Betikoak Jubilatuen Egoitzan, Roteta dendan edo Aizpe Elkartearen bertan eman dezakete izena.

PAGOERROTA

iturgintza




- Iturgintza
- Gasak
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behe (MENDARO)

Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323

J AN T Z I D E N D A Maria Angeles Azpiazu S A S T R E R I X I A



ONDO PASA JAIXAK

Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 943 03 36 29

SANTANA JAIETAKO EGITARUA

Uztailak 16 (zapatua)

16:30 Platerari Tiro Txapelketa
Larraskandan

Uztailak 17 (dometia)

ZAHARTZAROARI OMENALDIA

11:00 Kalejira Mendaroko

Txistulariekin

12:00 Meza Goñati pilotalekuan

12:30 Trikitixa Eskolako dantza erakustaldia

14:00 Bazkaria Aizpe elkartean

Uztailak 22 (barixakua)

23:00 Garagava Gorria

Pop-rock-elektro soinuak

Garagartzako plazan

Uztailak 23 (zapatua)

12:00 Trikitixa Eskolako dantza ikuskizuna Herriko Enparantzan

13:00 Txupinazoa

Jarraian, kalejira Bizi Poza txarang-
ga, erraldoi eta buruhandiek

14:30 Bazkari Herrikoa

Zelaikua Plazan

15:30 Karaokea

19:00 Salbea Azpilgoetan

Jarraian, Eliz Abesbatzak Festara
abestuko du

20:15 Txatunga Bembe kale
animazioa

23:00 Su jaialdia

23:30 Erromeria Lisker taldeare-
kin Herriko enparantzan

01:00 Play back lehiaketa

01:30 Diskoteka

Uztailak 24 (dometia)

08:00 Sokamuturra Garagartzan

10:00 Trikitilarien kalejira

11:30 Haur Tanborrada

17:00 Xurdir taldea

Haurrentzat antzerki-kontzertua
Goñati pilotalekuan

19:00 Sokamuturra txikia

Herriko enparantzan

19:30 Ustekabe Fanfarrea

23:30 GaraGaua Baltza

Funk-soul-afrobeat.dub-ska
soinuak Garagartzako plazan

23:30 Cuerdas y Voces taldea

Rantxerak eta boleroak

Herriko Enparantzan

Uztailak 25 (astelehena)

11:00 Debako Musika Bandaren
kalejira

12:00 Meza Garagartzako elizan

13:00 Debako Musika Bandaren

kontzertua

Herriko Enparantzan

17:00 Pilota Jaialdia

20:00 Egan taldea

Herriko enparantzan

22:30 Nagusien Tanborrada

Debako txarangarekin

24:00 Erromeria Egan taldeare-
kin Herriko enparantzan

Uztailak 26 (martitzena)

10:30 Prozesioa Azpilgoetatik

Santanako ermitara txistulariekin

11:00 Meza Santanako ermitan

Jarraian, Lizaso eta Egaña

bertsolariekin eta Andonegi eta
Ostolaza trikitilariarekin

15:00 Bertso Bazkaria

Toki Alai jatetxean

18:30 Heri Kirol jaialdia Goñatin

20:00 Bizi Poza txarangarekin

jai amaierako kalejira



**P
U
B**

ARRATS

Zelaikoa plaza,2. MENDARO. Tel: 943 75 50 58

Amagoia

ileapaindegia

Ondo pasa jaiak!

Tel: 943 03 38 35 • Mendarozabal, 4 behe



Ezenarro
Anotzenixia

Jurdan Ezenarro


- Altzariak
- Armairuak (enpotratuak...)
- Tallak
- Erreformak
- Eskailerak
- Ateak, lehiok
- Parquet-ak, tarimak...
- Egurrezko estrukturak
- Sukaldeak

Linazasoro7, 2. (estazio parean)
Tel.: 653 707 837 (MENDARO)
jurdaneze@hotmail.com

BELISARIO REVUELTA eta ANGEL GARCIA

SIGMAKO PILOTA TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEAK

«Sigma auzoko jaiak gainbehera zetoze- eta sortu genuen pilota txapelketa»



Eulogio Estarta elkarteak antolatzen duen Sigmako Pilota Txapelketaren 25. urteurrena betetzen da aurten. Belisario Revuelta, Angel Garcia (argazkietan) eta Jose Ramon Rojo izan dira txapelketaren sortzaileak. Uztailaren 25ean, Santiagon Egunean, jokatuko dira finalak.

✚ Noiz eta nolatan sortu zen Sigmako Pilota Txapelketa?

Duela 25 urte Eulogio Estarta Elkartearen presidentea nintzen (Belisario Revuelta), afizio handia nuen pilotarako eta San Lorentzoren jokatzeko moduko antola genezakeela otu zitzaigun. Gure kabuz ezin genuen antolatu, aseguruak direla-eta, baina garai hartako Baltasarreko presidentea zen Galdosek asko lagundu zigun. Gero, Aristirengana, Sigmako lantegiko goi kargu batengana, jo genuen laguntza eske. Palaz munduko txapelketa izana zen eta trofeoak jarriko zituztela esan zigun.

✚ Zergatik finalak beti Santiagon Egunean, uztailaren 25ean?

Lehen, Sigmako jaiak egun horretan ospatzen genituelako. Jaiak gainbehera zetozeelako hasi ginen txapelketa antolatzen. Santiagon Egunean jokatzeko ziren partidak eta 3 maila ezberdin jarri genituen, 3. maila auzotarrentzat utziz. Geu ere makina bat urtean aritu ginen.

✚ Ba al dabil auzotarrik orain?

Bakarra, Juanito Uria "Olaso". Gainera, edizio guztietan parte hartu duen pilotari bakarra da. Omenaldia egingo diogu, aurten erretiratzea erabaki baitu. Irabazlearen Txapela gehien jantzi dutenak, berriz, Ansola, Txurruka, Agirrebeña... izan dira.

✚ Zenbat pilotarik parte hartu dute aurten?

1. mailan zortzi bikotek eta sei bikotek 2. mailan. Azken aldian benjamin eta kadete mailakoak ere sartu ditugu txapelketa pixkat jantzeko. Lagunak Pilota Eskolako laguntza eskertzeko da.

✚ Lana al da dena antolatzea?

Geroz eta gehiago. Eskerrak babesleei. Aurtengo garaikurrak eta pilotak Udalak eman dizkigu. Sigmako industrialdeko enpresa eta jantzeko gehien laguntza ere ezinbestekoa da.

✚ Pilotak bereziak al dira?

Bai, frontoirako egokia den materiala ekartzen saiatzen gara. Azkoitiko Caballito Rojok egiten dizkigu neurria.

✚ Finalean ikusleentzako luntxa eskaintzeko ohitura duzue, ezta?

Bai. Poza De Sal-etik 15 bat kilo txorizo ekartzen ditugu; eta gazta eta urdaiazpikoa ere jartzen ditugu gerturatzeko diren gozagarri. Ondoren bazkaria egiten dugu elkartean.

✚ 25. urteurrena ospatzeko zer-bait berezia prestatu al duzue?

Finalak goizeko 10:30ean hasiko dira, meza ostean. Bertsolariak eta trikitilariak ekartzeko lanean ari gara, baina ez daukagu ezer lotuta. Baliteke sariak banatzera Jokin Errasti, Azkoitiko pilotaria, etortzea.

«Baliteke sariak banatzera Jokin Errasti, Azkoitiko pilotaria etortzea»

FUTBOL 7 TXAPELKETA

Zapatu honetan jokatuko dira finalaurrekoak eta eguaztenean finala



34 talde aritu dira nor baino norrago aurtengo Futbol 7 txapelketan eta lau talderik onenek jokatuko dituzte finalaurrekoak zapatu honetan, uztailaren 16an, Mintxetan (11:00). "Tratadearrankarlos" taldeak eta "Limaro" jokatuko dute lehen finalurrekoa eta "Jaika Cinco Estrellas"ek eta "Kashima Brewers" taldeek bigarrena ordu berean. Irabazleek elkarren aurka jokatuko dute asteazkenean, hilaren 20an, Mintxetan ospatuko den final handian (20:00). Aurrez, 19:00etan erabakiko dira hirugarren eta laugarren postua. Guztira 14 talde elgoibartarrek parte hartu dute Eibarko Unben eta Mintxetan jokatuko den txapelketan.

Debarroko Pilota Txapelketaren finala galdu zuten jubenilek

Lagunak Pilota Eskolako jubenil mailako bikoteak Debarroko Pilota Txapelketako finala jokatuko zuten joan zen zapatuan Itziaroko Zabalsoro pilotalekuan. Portuk eta Atxotegik Aloña Mendi taldeko Azkarate anaia izan zituzten aurkari eta 22 eta 15 galdu zuten finala. Hasieratik burua ezin jasorik ibili zen Lagunak taldeko bikotea eta oñatiarrek alde handia atera zieten. Azkarate atzelariaren nagusitasuna nabarmendu zen. Amaieran markagailua itxuratzea lortu zuten. Azken partida galdu arren, meritu handia du txapelketa garrantzitsu honen finalera iristek.



Taichi Ikastaroa irailean

Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du irailaren 6an emango zaiola hasiera Ramon Quina eibartarrak zuzentzen duen Taichi ikastaroari. Saiok Olaizaga kiroldegian izango dira, martitzenetan eta eguenetan, 17:00etatik 18:00etara. Interesatuak kiroldegian eman dezakete izena.

Ehiza Txapelketaren leku aldatzea

La Union Elkarteak Elgoibarko Ehiza Xeheko Txapelketa irailaren 3an antolatuko du, baina ohikoa zenez, Urnobotzan izan beharrean, Arabako Zanbrana herrian egingo da. Parte hartu nahi dutenek La Unioneko kirol bazkideak izan beharko dute eta elkarte honen izenean eduki beharko dute federazio lizentzia. Informazio gehiagorako La Union Elkartera zuzendu.

Ehiza aintzinako teknikak erabiliz uztailaren 23an

Leizarpe Espeleologia Taldearen eskutik aintzinako teknikak erabiliz ehizatze aukera izango da uztailaren 23an, zapatuan. Historiarraren gure arbasoek ehizan egiteko erabiltzen zituzten armak; uztaiak eta bultzagailuak nola erabili irakasteaz gain, ehizaldi txiki bat ere antolatuko da partaideekin. Leizarperen helburua mundu interesgarri hau Elgoibarko jendeari hurbiltzea da. Hamalau urtetik gorakoentzako pentsaturiko irteera da. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo izena emateko honako telefonora deitu: 666



53 70 88. Asierregatik galdetu. Izena ematen dutenak goizeko 10:00ean irtingo dira elkarteak Santa Klara 18an duen lokaletik.

Mintxetako atletak eta gurasoak Torreazoko krosean



Mintxeta Atletismo Taldeko korrikalariak eta hauen gurasoek Oñatiko Torreazoko Kross Herrikoian parte hartu zuten. 30 lagunetik gora joan ziren. Aloña Mendi Atletismo taldekoak duela 8 urte hasi ziren proba herrikoi hau antolatzen eta Arantzazu errekaaren parez pare doan 7,6 kilometrotako ibilbidea du.

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

† Bikotea enpresa edo jangela garbiketarako prest. Esperientzia industria garbiketari. ☎ **669 22 35 27**

† Geriatriako Erizaintzako Laguntzaile tituludun neska gaztea aiton-amonak zaintzeko prest. 3 urteko esperientzia. ☎ **656 77 42 15 (Amaia)**

† Emakumea abuztuan garbiketari lanak egiteko prest ☎ **626 914 904**

† Neska Elgoibaren buzoneo lanetarako prest. ☎ **943 74 39 11 (Marivi)**

† Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **617 22 63 05**

† Emakumea gaixoak zaintzeko prest, goizez edo gauzez. ☎ **943 17 28 96**

† Neska gaztea etxeak garbitu, gaixoak edo edadetuak zaintzeko prest. ☎ **943 17 28 96**

† 19 urteko neska haurrak zaintzeko prest. ☎ **649368137**

† Emakumea nagusiak zaindu edo jate-txe eta tabernetan ontziak garbitzeko. Papelak ditut. ☎ **690 701118**

† Emakumea nagusiak, haurrak zaindu edo garbiketari lanetarako prest. ☎ **943 74 03 31**

† Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketari lanetarako prest. Elkartek, portalak, tabernak... ☎ **646 235 195**

† Neska gaztea uztailan lan egiteko prest. ☎ **689 584 285**

† Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketari lanetarako prest. Elkartek, portalak, tabernak... ☎ **639 88 20 04**

† Tituludun soldadorea eta erakuntzan 2. mailako ofiziala den mutila lanerako prest. ☎ **943531745/661225149**

† Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketari lanetarako prest. ☎ **686 57 82 28**

ESKAINITZA

† Jatetxerako pertsona behar da.

☎ **629 44 25 80**

† Ume bat zaintzeko neska behar da.

☎ **690 70 31 18**

† Ikastolako kirol entrenamenduetarako teknikaria behar da. informazio gehiago: elgoibar@ikastola.net ☎ **943 74 44 41**

† Kamareroak behar dira ostalaritzan lan egiteko. ☎ **699 00 51 35**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

† Etxea salgai San Frantzisko kalean. 2 logela, egongela, sukalde, komuna, trasteroa, galeria. 150.000 euro. ☎ **666 04 27 10**

† Etxea salgai Santa Ana kalean. 60m², sukalde eta egongela ederra, 2 logela, komuna. Iggogailua. ☎ **943 74 26 14**

† Pisua salgai Altzolan. Berritua. 3 logela, komuna, terraza, sukalde handia. Prezio onean. ☎ **645 70 77 00**

† Pisua salgai Iñiguez de Karkizano kalean. Berritua, altzariekin, dena kanporra. Ganbararekin. ☎ **627 94 12 61**

† Etxea salgai Sorluzen. ☎ **943 85 29 99**

† Etxea salgai Foruen Plazan. ☎ **675 70 61 38/943 74 44 32**

ALOKAIRUA

† Etxea alokatzen da.

☎ **659 19 23 56**

† Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz), Bateles hondartza ondoan. Irailetik aurrera. Guztiz jantzita. ☎ **680 44 26 68**

† Apartamentua alokatzen da Saloun, Noveñy eraikuntzan. Guztiz jantzita. ☎ **629 98 98 99**

† Apartamentua alokatzen da Conilen. Asteak edo hamabostaldiak. ☎ **943 81 23 65**

† Etxea alokatzen da Zarautzen.

Asteburuak, zubiak, oporrak... hondartza-tik gertu. ☎ **685 71 84 54**

† Pisua hartuko nuke alokairuan.

☎ **626 91 49 04 (Rosa)**

† Pisua hartuko nuke alokairuan.

☎ **615 00 83 46**

† Pisua hartuko nuke alokairuan uztaila-ko bigarren hamabostaldian Deban edo Elgoibarren. ☎ **943 74 21 44**

† Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **639 88 20 04**

† Pisu txiki bat hartuko nuke alokairuan.

☎ **677 09 70 15 (Carmen)**

† 5 logelako etxea alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak... Itsasora eta mendira bistak. ☎ **677780680/964491022**

† 3 logelako pisua alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak... Igerilekua, mini-golf, toki berdeak... ☎ **677780680/964491022**

† Pisua hartuko nuke alokairuan.

☎ **646 235195**

† Pisua salgai. 4 logela. 2 komun.

Erreformatuta. Gas naturala. Bista ederrak. ☎ **943 74 88 31**

[LOKALAK]

† Gazte koadrila batek lokala behar du Elgoibarren. ☎ **687 000 914**

[GARAJEAK]

† Garaje itxia trasteroarekin salgai Pista Beltzean. ☎ **943 74 27 78**

† Garajea alokatzen da Leku-Ederren. ☎ **943 74 20 34, 639353331**

† Garaje itxia alokatzen da Jausoro Plazan. ☎ **653 74 67 43**

† Garaje itxia salgai Madalan. 28 m² ☎ **646 50 28 66**

[SALEROSKETAK]

† Ezkon soinekoa eta osagarriak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 talla. 480 euro. ☎ **943080081/615726430**

† Eskopeta repetidora eta paralela kanoia arariatua salgai.

☎ **943 74 00 79**

† Errepideko bizikleta salgai. Prezio onean. Koadroa Razeza erdiko neurria, aluminiozkoa. RX100 Shimano.

☎ **943 74 16 64 (Xabier)**

† Trikitixa akordeoia salgai. Zero Zette, model B. Beltza. Berria. 900 euro. ☎ **656 77 26 36**

† Ford Fiesta XR2, 1800, 16v. salgai.

SS-AM. ☎ **639 949970**

† PS2ko 13 joku orijinal salgai.

Bakoitza 20euro. ☎ **627889259**

† Citroen Xsara 2.0i 16v VTS salgai.

36.000km. 9346 BSX. 2002. urtekoa.

☎ **699436295/659 563686**

[BESTERIK]

† U2sarreakditut@yahoo.es

† Hamsterrek oparitzen ditut.

☎ **943 74 37 09**

† Erloju beltza galdu dut King-Kongetik San rokera bidean. ☎ **943 74 26 36**

† Erretxinditiki liburutegira bitartean txaketa marroia galdu dut. ☎ **699198259**

Debabarrenako telebistak

Kudeatzailea behar du:

Eskaintzen da:

- Egun osoko kontratua.
- Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Eskatzen da:

- Enpresa administrazio ikasketak.
- Taldeak koordinatzeko eta ekipo-lana garatzeko trebetasuna.
- Marketing ezagutza.
- Harremanetarako gaitasuna.

Orokorrean:

- Autoa edukitzea derrigorrezkoa da.
- Hasiara langile guztiek prestutasuna izan beharko dute telebistako lan teknikoan trebatzeko (kamara erabilpena, editaia...)
- Euskara ondo jakitea.
- Hobetsiko da eskualdekoa izatea eta lan-esperientzia izatea.

Kurrikulum-ak bidali: Pil-Pilean Kultura Elkartea, 27 Postakutxa, Sorluz 20590. Emaila: ilpilean@euskalnet.net Edo Elgoibarko Izarra elkarte, Ubitarte 4.

MINTXETA

110m²-ko lokala salgai. 3 logela. 35m²-ko sukalde eta jantokia. 2 komun. Berogailua, gas naturala. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpoaldera. Oso eguzkitsua eta intsonorizaturia.

ARBELOA INMOBILIARIA San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27 / 699 95 30 21



[ZORIONAK]



† Zorionak **amaxo** uztailaren 12an urteak bete zenituelako. Alaba Iratiren partez.



† Zorionak eta muxu handi bat **Sugar**, joan den astean urtebete egin zenuelako. Ikastolako laguntxoen partez.



† Guapua zinan benetan, Sallobenteko ganadero jatorrena. Eskerrik asko! Santiago Egunerako zorianak bihotzetik.



† Zorionak **Yaiza** uztailaren 31n 3 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta etxekoekin partez muxu handi bat.



† Zorionak **Mikel** bihar 8 urte beteko dituzulako. Gurasoen, Aritz, eta aitxitxa eta amamaren partez. Muxu handi bat.



† Zorionak **Iraitz** zure 9. urtebetetzean. Ondo pasa familiakoekin eta bereziki, anaia Enekoren partez.



† Zorionak **Andrea** uztailaren 17an zure eguna delako. Aitxitxa, amama, guraso eta ahizpa Sofiaren partez. Ondo pasa!



† Zorionak **Aritz** gaur, hilak 15, 2 urtetxo egin dituzulako. Etxekoekin partez.



† Zorionak **Goizeder Amedori** abuztuaren 4an zure eguna delako. Gurasoen eta bereziki, ahizpa Eiderren partez.



† Zorionak **Laida** abuztuaren 5ean bi urte egingo dituzulako. Familiakoekin eta bereziki, anaia Anerren partez.



† Zorionak **Pedro** uztailaren 22an urteak egingo dituzulako.



† Zorionak **Lore** uztailaren 8an 11 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



† Zorionak **aita** uztailaren 29an urteak beteko dituzulako. Ama, Sarai eta Danelen partez. Bazkarian ikusiko gara!




† Zorionak **Naiara eta Iker!** Familiako guztien partez muxu handi bat.



† **Monika eta Roberto**, oso zoriontsuak izan zaitezte! Familiakoekin partez.



† Zorionak **Maria eta Nora Mugerza** uztailaren 14 eta 23an, zuen 1. eta 5. urtebetetze egunak direlako. Familiakoekin eta bereziki, Jonen partez.



† Aupa **bikotea!** azkenean iritsi da eguna! Zorionak eta ondo pasa! muxu bat familiakoekin, koadrilakoekin eta Kiraren partez.



MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kango eta baretako estalura
Zaluzen kolokazioa
Lakadets: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

San Roke, 7 behean
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570





[OKINDEGIA]

UZTAILA

17 igandea IZAGIRRE
24 igandea FOTERO
25 astelehena IBARRENEA
31 igandea BOLINTXO

ABUZTUA

7 igandea DOÑA MERCEDES
14 igandea EIZAGIRRE
15 astelehena DOÑA MERCEDES
21 igandea FOTERO
24 eguaztena IBARRENEA
28 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

UZTAILA

15 EGUNEZ Ibañez
16 Yudego Yudego
17 Yudego Yudego
18 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana)
19 Fernandez Fernandez
20 Bidasolo Bidasolo
21 Ibañez Ibañez
22 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana)
23 Bidasolo Bidasolo
24 Ibañez Ibañez
25 Fernandez Fernandez
26 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana)
27 Fernandez Fernandez
28 Bidasolo Bidasolo
29 Ibañez Ibañez
30 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana)
31 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana)

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ

Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA

Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

ABUZTUA

EGUNEZ	GAUEZ	EGUNEZ	GAUEZ
1 Ibañez	1 Ibañez	1 Ibañez	1 Ibañez
2 Bidasolo	2 Yudego	2 Bidasolo	2 Bidasolo
3 Etxeberria	3 Yudego	3 Etxeberria	3 Etxeberria (Errosaria)
4 Ibañez	4 Etxeberria	4 Ibañez	4 Ibañez
5 Bidasolo	5 Fernandez	5 Bidasolo	5 Bidasolo
6 Zabaleta	6 Bidasolo	6 Zabaleta	6 Zabaleta
7 Zabaleta	7 Ibañez	7 Zabaleta	7 Zabaleta
8 Etxeberria	8 Etxeberria	8 Etxeberria	8 Etxeberria (Errosaria)
9 Ibañez	9 Ibañez	9 Ibañez	9 Ibañez
10 Bidasolo	10 Ibañez	10 Bidasolo	10 Bidasolo
11 Etxeberria	11 Fernandez	11 Etxeberria	11 Etxeberria (Errosaria)
12 Ibañez	12 Etxeberria	12 Ibañez	12 Ibañez
13 Bidasolo	13 Fernandez	13 Bidasolo	13 Bidasolo
14 Bidasolo	14 Bidasolo	14 Bidasolo	14 Bidasolo
15 Bidasolo	15 Ibañez	15 Bidasolo	15 Bidasolo
16 Etxeberria	16 Etxeberria	16 Etxeberria	16 Etxeberria (Errosaria)
17 Zabaleta	17 Etxeberria	17 Zabaleta	17 Zabaleta
18 Yudego	18 Etxeberria	18 Yudego	18 Yudego
19 Etxeberria	19 Etxeberria (Errosaria)	19 Etxeberria	19 Etxeberria
20 Yudego	20 Yudego	20 Yudego	20 Fernandez
21 Fernandez	21 Fernandez	21 Fernandez	21 Fernandez
22 Yudego	22 Yudego	22 Yudego	22 Yudego
23 Zabaleta	23 Zabaleta	23 Zabaleta	23 Zabaleta
24 Etxeberria	24 Etxeberria (Errosaria)	24 Etxeberria	24 Etxeberria
25 Zabaleta	25 Zabaleta	25 Zabaleta	25 Zabaleta
26 Yudego	26 Yudego	26 Yudego	26 Yudego
27 Etxeberria	27 Etxeberria (Errosaria)	27 Etxeberria	27 Etxeberria
28 Etxeberria	28 Etxeberria (Errosaria)	28 Etxeberria	28 Etxeberria
29 Fernandez	29 Fernandez	29 Fernandez	29 Fernandez
30 Yudego	30 Yudego	30 Yudego	30 Yudego
31 Zabaleta	31 Zabaleta	31 Zabaleta	31 Zabaleta

SALLOBENTEKO JAIAK

Abuztuak 6, zapatua

18:00 Kanpai jotze eta zuziriak
Ondoren, Errosarioa eta meza auzoko hildakoen alde
19:30 Makailu-ñan herrikoia, auzoko aiton-amonentzat
Afal ostean, Maialen Lujanbio eta Peñagarikano bertsolariak
23:00 Lehen bolo saioak
23:30 Erromeria "Kiñu" taldearekin

Abuztuak 7, domekia

11:00 Meza Ondoren, pilota partidua
14:30 Lagun arteko bazkaria
18:00 Herri kirolak Ondoren, Gorixon zezenak
22:00 Bolo saioak
23:00 Erromeria "Gardoki" rekin

Abuztuak 9, martitzena (San Lorentzo bezpera)

15:00 Mus Txapelketa
22:30 Erromeria "Milabier" soinu-jolearekin
23:00 Bolo saioak

Abuztuak 10, eguaztena (San Lorentzo Eguna)

11:00 Meza Ondoren, Aureskua: Haritz EDTren eskutik
12:30 Pilota partidua
18:00 Hauren jolasak. Goriti eta bere abereak
Ondoren, Txokolatea denentzat
20:00 Emakumeentzako bolo saioa
22:30 Bolo saioak
23:00 Erromeria "Balzola" anaiekin
24:00 Bolo Txapelketa

SAN ROKEKO JAIAK

Abuztuak 15, San Roke Bezpera

17:00 Pilota partida ikusgarriak
20:00 Errosario Santua
20:30 Bertso afaria Lujanbio eta Lizaso bertsolariarekin, tarteka, Larrañaga eta Epelderren saioak

Abuztuak 16, San Roke Eguna

8:00 Txapliguak eta txupinazo botatzea
11:00 Meza Nagusia haritz EDTren saioarekin
Jarraian, Mintxeta osaba-ilobak harrijasotzen
Berehala, Zaldi lasterketa bertako zelaietan
17:00 Umen jolasak Ondoren, Zezentxoak eta poniak
23:00 Demaseko erromeria Laja eta Egurenekin
01:00 Bolo jokoa

Abuztuak 17, San Roke Txiki Eguna

8:00 Txapliguak eta txupinazo jaurtitzea
11:00 bailarako hildakoen aldeko meza
12:30 Sokatira lehiaketa, ezkon eta ezkongabeen artean
Ondoren, zaldi probak
14:00 Anaiarteko bazkaria, Gardokik alaituta
17:00 Herri kirolak Jarraian, zezentxoak eta poniak
22:30 Jose Gardokirekin erromeria Tartean, bolo saioak
01:00 Orgatilaren zozketa

[15 BARIKAKUA]

19:00 AZTERKOSTA ERAKUSKETA

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak sustatutako "Aztertu, ezagutu eta maitatu" proiektuaren barruan Gaiak: itsasaldeko ekosistemak, padurak, luraren erabilera, arazoak eta itsasertzaren babes, e.a.
Kultur Etxeko erakusketa gelan

[16 ZAPATUA]

11:00 FUTBOL 7 TXAPELKETAKO FINALERDIAK

Partidak: Tratadearrankarlos - Limaro eta Jaika Cinco Estrellas - Kashima Brewers
Mintxetan

[20 EGUAZTENA]

20:00 FUTBOL 7 TXAPELKETAKO FINALA

Mintxetan

[22 BARIKAKUA]

22:30 ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XIX. FOLKLORE JAIALDIA

Taldeak: "UIS Folklore Musika eta Dantzen Taldea" (Kolombia), "Sayani Taldea" (Tuvako Errepublika) eta Haritz EDT
Antolatzailea: Haritz EDT

[23 ZAPATUA]

10:00 EHIZA AINTZINAKO TEKNIKA ERABILIZ

Irteera: Santa Klara kaleko Leizarperen lokaletik
Norentzat: 14 urtetik gorakoentzat
Izena emateko azken eguna: uztailak 15
Izena emateko: 666 53 70 88 (Asier)
Antolatzailea: Leizarpe Espeleologi Taldea

[25 ASTELEHENA]

10:30 25. SIGMAKO PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK

Sigmaiko pilotalekuan
11:00 SARGOATEKO ERROMERIA
Sargoaten

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR PLAZA HANDIAN

«Dos Hermanos»
15, barixakua: 22:30
«La Casa de las Dagas Voladoras»
16, zapatua: 22:30
«El Penalty mas largo del mundo»
23, zapatua: 22:30
«La Maldición»
24, domekia: 22:30
«Robots»
25, astelehena: 22:30

EIBAR, UNZAGA

«Los cuatro fantasticos»
15, barixakua: 19:30-22:15
16, zapatua: 17:00-19:30-22:15
17, domekia: 17:00-19:30-22:15
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitzena: 19:30-22:15
20, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«El Calentito»
15, barixakua: 19:30-22:15
16, zapatua: 17:00-19:30-22:15
17, domekia: 17:00-19:30-22:15
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitzena: 19:30-22:15
20, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Dos Hermanos»



Zuzendaria: Jean Jaques Annaud.
Antzezleak: Guy Pearce, Jean Claude Dreyfus, Moussa Maaskri.
"El Oso" filma egin ostean berriz ere animaliekin lan egin du Jean-Jacques Annaud zinegile frantziarrak. Oihan batean jaio diren bi tigrekume dira protagonistak. Galduta dagoen tenplu baten itzalpean hazi dira. Bata lotsatia eta maitakorra da eta bestea ausarta. Tenplu sakratuak gordetzen dituen altxorak bilatzen dituen ehiztari ohi bat iristean bi anaien patua gutiz aldatuko da.


«La Casa de las dagas voladoras»

Zuzendaria: Zhang Yimou.
Antzezleak: Takeshi Kaneshiro, Andy Lau Tak Wah.
Tang dinastia, Txinako argitsuenetakoa, gainbehera dator Kristo Aurreko 859 urtean. Enperadoreak ez du behar adinako gaitasunik eta ustelkeria da nagusi gobernuan. Ondoeza nabarmena da herrialde osoan eta protesta gisa armada matxinatu dextente agertu dira. Indartsuena eta izenik handiena duena filmeari izenburua ematen dion talde sekretua da. Pobreei emateko aberatsei lapurtzen dienez jendearen mirespena eta babes eskuratu dituzte eta bizkor hedatu dira.

Atzera begira



1948. urteko erretratu zahar hau **Ilario Agirrebeñak** laga digu. Maiatzaren 27an Lasarteko Mitxelín futbol zelaian ateratako argazkia da. C.D. Elgoibarrek koadrilen arteko tomeoa antolatu zuen urte honetan, eta tomeo honetako jokalaria onenak Lasarten jokatu zuten Donostiako Marianistas Ikastetxeko taldearen kontra. Ekipo honetan hiru jokalaria ezagun zeuden: Elias Kerejeta atezaina, Elizondo Realeko atzelari ohia eta Eskos (†); Debako aurrelaria. Elgoibarko taldeak 4-1 galdu zuen. Golegilea Iñaki Gorostiza izan zen. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak. Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Felix Ayesta, Roberto Sol, Jose Luis Garate (Jesuita), Juanito Irueta, Ilario Agirrebeña eta Jose Mari Ibarluzea (†)**. Behean, ezkerretik eskumara: **Jesus Mari Izagirre, Bizente Zubiaurre, Iñaki gorostiza, Jose Luis Ansola eta Ramon Arozena (†)**.



EGUZKI

**GAUR, UZTAILAK 15
GONBIDATUTA ZAUDE
GURE INAUGURAZIORA!!!!**

19:30etatik 21:00ak arte

P.M. Urruzuno kalea, 6 behea • MENDARO



URKIDI AHOLKULARITZA

**KONTABILITATE
LAN
FISKAL**

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91



karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

ZUBI
FARMA

PARAFARMAZIA

- Puerikultura
- Dietetika, belardenda
- Ortopedia
- Kosmetika, higieena



Herriko Enparantza, 9 - **MENDARO**

Tel.: 943 03 16 46



XUMUXUA
Jatetxeak



Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak
Despedidak
Taldeak... kontsultatu

Restaurante

Luzaide

Mendarozabal, z/g - Tel. 943 75 61 66
MENDARO



Restaurante

Orbe



Pol. Azitain, 7 - Tel. 943 20 12 61
EIBAR



ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XIX. FOLKLORE JAIALDIA



UZTAILAK 22
OSTIRALA
22:30ean



OLAIZAGA
KIROLDEGIAN



EUSKAL HERRIA - TUVA - KOLONBIA



Elgoibarko Udala
Musika eta Danitza
Udal Fundazioa



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Elgoibarko
Kirol Patronatua



Txanlakua
Merkatarri Elkarte



Haritz
Euskal Danzari Taldea